



FERRAN ADRIÀ

«Innobazioa neurritz kanpo mitifikatzen da»



Inazio Arregi

Tokikom-eko lehendakaria

«Diru-laguntzak gaintitu eta hitzarmenak lortzea da gure nahia»

Segi

Gazteekiko sortu den amildegiak ekarri du bere amaiera

Andeka Larrea

antropologoa

«Euskal Hiriaren ideiak zilegitasuna eman nahi dio AHTri»

Itxaso Martin

Ni, Vera nobelaz

«Mamuak lasaitutakoan hasi nintzen idatzitakoa eleberri gisa itxuratzen»

Sainzigarrene

baserria

105 urtez maizter izanda ere, kalera joateko zorian

Telezaborra ikusten duzu beti. Zergatik?

- A-** Es lo que nos gusta en España. Coño.
- B-** Désolé, je ne comprends pas votre patois.
- C-** Ez dago besterik telebistan.

Zure erantzuna A edo B izan bada: Ezin dizugu lagundu.

Zure erantzuna C bada: **Beranduegi.tv** bisitatu behar duzu. Asteartero.



**2012ko Rikardo Arregi Kazetaritza Sarietako epaimahaiaren sari berezia.
Beranduegi... ohiko albistegi bat egiteko.**



www.beranduegi.tv

www.argia.com



Beranduegi.tv



Azaleko argazkia:

DANI BLANCO

Azala: GARBINE

UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: SS-837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



Deabruaren abokatua

● **Benito Lertxundi:** «Falta naizenean nire kantuekin zer egingo duten ez zait kozkorrik inporta». **SUSTRAI COLINA / 4**

Asteko gaia

● **Baserritik kanporatuak.** Sainzigarreneak bizi egin nahi du. **GORKA BEREZIARTUA / 5**

Pertsonaia

● **Ferran Adrià:** «Kreatibitatea babak eltzetik ateratzea da». **SUSTRAI COLINA / 10**

Gaiak

● **Andeka Larrea:** «Hirigintza da gatazka soziala desaktibatze bide eraginkorrenetako». **UNAI BREA / 15**

Iritziak

- Zer da nafarra izatea? **FERMIN ERBITI / 18**
- Txandan Barkamena. **JUANRA MAKUSO / 18**
- Gora Pro Nobis **ASISKO URMENETA / 19**
- Palestina. **KOLDO ALDALUR / 20**
- Zirtak Perfekzioa: eskuak (eta III). **JULEN GABIRIA / 21**
- Bertso berriak Petrolioaren lioa. **JON MARTIN / 22**

Erdiko kaiera

- **Amaiur 2012.** Erregerik gabeko erresuma amets. **MIKEL ASURMENDI / 23**
- **Itxaso Martin:** «Emozioekiko dudak ikuspegia etiketatetik oso urrun dago». **GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 26**
- Eraso politikoa zinemari. **MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 28**
- **Liburuak** **ARITZ GALARRAGA / 30**
- **Diskoak** **IKER BARANDIARAN / 31**
- **Ezpalak** **JON TORNER / 32**
- **Abarrak** **JON TORNER / 33**
- **Denbora-pasak** **ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34**
- **Zientzia eta teknologia** **JOXERRA AIZPURUA / 36**
- **Landareak** **JAKOBA ERREKONDO / 37**
- **Denboraren makina** **NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38**

Termometroa

- **Segiren amaiera.** Lekukoa herrietan utzi du Segik. **URKO APAOLAZA / 39**
- **Iruzur fiskala.** Ogasunaren ezkutuko amnistia. **DANIEL UDALAITZ / 42**
- **Inazio Agirre, Tokikomeko lehendakaria:** «Bakarka nekez egingo dugu aurrera». **ONINTZA IRURETA AZKUNE / 43**
- **Bero-beroa** **JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46**
- **Maltzagatik** **XABIER LETONA / 47**
- **Net Hurbil** Milioi bat sinadura erremedio naturalak salbatzeko **Europar. PELLO ZUBIRIA / 48**

Azkena

● Inposaketa(k). **JOXE IRIARTE, BIKILA / 50**



“Falta naizenean nire kantuekin zer egingo duten ez zait kozkorrik inporta”

Benito Lertxundi

Diskoren lehen aurkezpen kontzertua diskoa grabatu aurretik egin zuen.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Dani Blanco

Mende erdi bat oholtza gainean eta oraindik promoziora kondenatua!

Diskoa atera eta kazetariak deika hastean “ez dugu aurkitzen, mendira joan da!” esango balute, ziur biharamunean denak korrika joango liratekeela diskoa erostera, baina... Zer nahi duzu, niri gustatzen zaizkidan artistak muturzikinak dira.

Pako Aristik arrazoi: jarraitzaileen gizarte batean bizi gara.

Gizartea artaldea den heinean munduak beti behar izan ditu artzainak. Baina gure gogoa librea da, edo ez da gogoa. Sinismena ezin liteke ulermenarekin bizi, eta niretzat ulermenak balio du, arrazoiak, ez mito bati jarraitzeak.

Eta ulermenari segitzea sinismena balitz?

Oso aberasgarria eta duina da norberak gizaki inteligentea dela deskubritzea. Inork ezin du inor salbatu, nor bere adimenarekin salbatzen da. “Salbaia da salbatzen den bakarra” zioen Leonardo Da Vincik, ez alferrik.

Artista mitikoen egoa ere salbaia da gero!

Egoa gure pentsamendua baizik ez da, gure arazo guztien iturria, eta egoari aurre ez egitea itogina tiritat batekin tapatzea da.

Esadazu horretarako ez dagoela kultura bezalako baltsamorik...

Kulturak dena egiten du: okertu, zuzendu,

sendatu, gaixotu... Munduko gatazka guztiak liburuetan daude, eta hala ere, liburuei aldare bat egin diegu. Behatza zupatzeari utziko badiogu gatazkei heldu behar diegu, ez liburuei!

Lasai, herri honetan hildako kantarien omenez egiten diren kontzertu jirak ikusita, zuk ere izango duzu zure aldarea!

Falta naizenean nire kantuekin zer egingo duten ez zait kozkorrik inporta. Ez naiz egongo, ez dut egorik izango, eta egin ditudanak bost axola izango zaizkit. Orain naizena da interesatzen zaidan bakarra.

Orain zure kantuak ez direla zureak kontatuko didazu, ezta?

Kantua haizetara bidaltzen duzu eta gero haizea da. Zuk haizea hartzen duzu, nik ere bai. Zuk haizea bota egiten duzu, baita nik ere. Agian zuk botatakoa hartzen dut nik, eta alderantziz. Horregatik, eskubideak kobratzeko orduan soilik dira nireak abestiak.

Haizea alde, Orioko arraunlariak beharko dute. Aurten bigarren mailan.

Kontxako bandera dugu amets. Lehen aldia litzateke bigarren mailan dabilen batek Kontxa irabaztea, eta agian azkena. Ez duzu uste hori egitea ere oriotarrei tokatzen zaiela? ■



Baserritik kanporatuak

Sainzigarreneak bizi egin nahi du

Hondarribiko Sainzigarrenean baserriak bere jabeen kontra borrokatu beharko du, sasiaren, asunen eta goroldioaren kontrako dema etsian bukatu nahi ez badu.

Etxearen jabeek maizterrak bota nahi dituzte, eta hutsik hiltzen utzi. Azken urteetan nagusi berek beraien baserrietan bizi ziren beste hainbat familia ere kanporatu dituzte eta alferrik galtzen utzi dituzte etxaldeak.

GORKA BEREZIARTUA

Argazkiak: Dani Blanco

105 URTE ETA GERO HAU. Mari Carmen Gurutxetek, Hondarribiko Sainzigarrenean baserriaren atariko mahaian eserita, atzera egin behar du familiako zuhaitz genealogikoan hona bizitzera noiz etorri ziren esplikatzeko: “Historia 1907an hasten da. Nire aiton-amonak ezkon-

tzen dira eta baserrira etortzen dira. Han jaiotzen dira nire ama eta nire osaba-izebak. Eta gero ama aitarekin ezkontzen da, jaiotzen naiz ni, nire anai-arrebak, denak. Ama baserrian geratzen da aitarekin eta osabarekin. Bost seme-alaba dauzka eta ni geratzen naiz hemen.





CC-BY-SA / GUREGIPUZKOA.NET



Gero ni ezkontzen naiz... Guk ez genuen inoiz arazorik izan nagusiarekin; nagusia etortzen zen errenta kobratzera, gustura egoten zen, beti esertzen zen mahai honetan, jaten zituen sagarrak, ibiltzen zen, ikusten zuen negutegia... Oso gustuko gauza zuen eta hilerotortzen zen”. Darabilen hitz egiteko moduak erakusten du ezin sinetsizkoa zaiola bizi duen egoera: hiru belaunaldi bertan hazi dira eta orain, goizetik gauera, kale gorrian gera daitezke.

Baserriaren jabea zen Josetxo Jauregi Laborda gaixotu ondoren hasi zen egoera nahasten, Gurutxetek kontatu duenez. Errenta kobratzeko baserrira ezin igo, eta bera hasi zela kalera jaisten. “Bazuen denda bat eta hilerotortzen nintzen pagatzera. Pagatzen nion, pagatzen nion... eta momentu batean berak esaten dit gehiago ez duela kobratu behar errentarik; eta nik esaten diot errentak pagatu behar direla. Berak lasai egoteko, errentak ez direla pagatu behar. Baina ni errenta guztiak hasten naiz sartzen epaitegian. Eta han egon ziren urte eta erdi. Gero dirua handik atera eta kartilla batean sartu nuen. Eta hilerotortzen nire kontutik kartilla horretara joaten zen errenta guztia”.

Ezkerreko argazkia duela urte batzuk atera zioten Kostonea baserriari, mantentze lanetan ari zirela. Eskuineko duela egun batzuetakoa da. Jabeek hondatzen laga dute etxea, maizterrik gabe utzi ondoren.

Duela hiru urte, Josetxo Jauregi artean bizi zela –iazko azaroan hil zen– haren seme-alabak agertu ziren baserrian, Itziar, Isabel eta Juan Jauregi Rodriguez. Kontua gaiztotzen hasi zen. “Esan zuten ni ari nintzela beraien jabetza okupatzen. Nik esan nien ez nuela deus okupatzen, nire ama jaioa zela hemen, ni jaioa nintzela hemen, errenta guztiak pagatzen nituela; eta kartilla erakutsi nien”. Baietz erantzun zioten orduan, baina kontratua egin behar zutela; bi aldeek abokatuak elkarrekin hitz egitekotan geratu ziren.

Epaitegiko laharak

“Baina abokatuak ez zuten hitz egin. Pasa zen hilabete eta erdi eta deitzen dit semeak, esanez joan behar nuela bere abokatuaren bufetera, han zegoela kontratua eta nik sinatu behar nuela. Eta klaro, ni ez nintzen pasa”. Zer sinatu behar zuen, dio Gurutxetek, ezer adostu gabe baldin bazegoen. “Eta iristen da demanda. Eta demanda horretan esaten didate egin dudala txalet bat igerilekuarekin eta bizi naizela ezer ordaindu gabe”. Negutegirik ez daukala zioen salaketak, ezta baratzerik eta animaliarik ere; laborantza teknikaria inspektzioan etortzen zenean auzotik ekartzen zituz-

tela aziendak itxura egiteko. Funtsean, Gurutxet eta bere familia ez zirela nekazaritzatik bizi, ez zutela ordaintzen errentarik eta lehenbailehen joan behar zutela.

Hortik aurrerako korapilo judizialak asko estutu du Sainzigarreneakoen lepoa. Epaiketa galdu zuen Gurutxetek; sententziaren arabera, bere aurrekoek eduki zuten alokairu mota –Landa Errentamenduen Legeari loturikoa– ezin zaio berari aplikatu, ez omen delako “nekazaritza alorreko profesiona-
la”. Jauregi familiaren salaketa ontzat eman zuen epaileak, Sainzigarreneara joatea nahikoa den arren ikusteko han lurra lantzen dela eta abereak zaintzen dituztela.

Abokatuak zereginik ez zegoela esan zion eta moldatuko omen zela jauregitarren abokatuarekin, sikiera bizpahiru hilabetez baserrian geratzea lortzeko, gero alde egiteko baldintzapean. Ez ziotenez baserriko animalientzat aterabide onik lortzeko denbora ere eskaini, helegitea aurkeztea erabaki zuen beste abokatu bat hartuta, baina bigarren epaia lehenbizikoa baino mingarriagoa izan da: prozesu judizialeko alderdi tekniko batean

oinarrituta, Jauregi familiari eman dio epaileak arrazoia berriz ere; gainera, kalte-galera gisa kobratu dituzte Gurutxetek jasoak zituen errentak. “Nik helegiteekin ez jarraitzeko kentzen dizkidate errenta guztiak”. Epaia-
ren paradoxa ere seinalatu du: “Beraz, ez naiz maizterra, baina errentak ordaindu ditut” dio suminduta.

“Esan zuten ni ari nintzela beraien jabetza okupatzen. Nik esan nien ez nuela deus okupatzen, nire ama jaioa zela hemen, ni jaioa nintzela hemen, errenta guztiak pagatzen nituela”

MARI CARMEN GURUTXET

Erosteko bidean sasitza

Ez zen halakorik gertatuko familiak baserria erosteko aukera izan balu. Eta zabaltzen ari den zurrumurrua da Jauregi familiak eskaini zela Sainzigarreneako maizterrei aukera hori, baina uko egin ziotela –erreportajea egiteko galdezka hasita bi iturri desberdinetatik entzun du kazetariak bertsio hori–. Gurutxetek ukatu egin du halakorik eta baserriaren historian atzera egin du, azalpen zehatza emate aldera: “1980an ateratzen da lege bat esaten duena eskubidea dugula baserria erosteko” esplikatzen du. Artean, bere aita baserrian bizi zen, eta jabeari behin baino gehiagotan gogorarazi zion etxea erosi nahi zuela. 1982an, baserriaren eta inguruko lurren tasazioa eginda

EGIZUHARPIDETZA
EGIOZUHARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 138 € / Ipar Euskal Herrian 168 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonoa

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 · harpidetza@argia.com

Jaso lekuan kobratu SEILORIK EZ

argia
1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Balmien zkoa. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

ZELAPARRA HEMEN HAN



mahaian eseri ziren; horien arabera, orduko milioi eta erdi pezeta balio zuen jabetzak. “Nire aitak esan zion: ‘Zenbat eskatzen duzu?’. Eta berak erantzun: ‘Hamar milioi’. Eta aitak esan zuen: ‘Ez, bost milioi’”.

Preziosa adostu zuten noizbait: zazpi milioitan Sainzigarreneako maizterrek jabe izango ziren azkenik. “Baina tratua ez zen itxi”, dio Gurutxetek. Hiru aldiz errepikatu du hori, ez zutela akordioa ixterik lortu, jabeak saihestu egin zuela baserria eskuz aldatzea, baina “zuek lasai, zuek lasai” esan ziela; antzeko zerbeit abokatuak ere, bizi bitarteko errenta zeukatela eta ez kezkatzeko.

Goroldioa, baserriak jaten

Bazen kezkatzeko arrazoirik: orain etxerik gabe geratzeko zorian daude. Beraien egoera ezagutzera eman zenetik Hondarribiko bizilagunen babesa jaso dute Sainzigarreneakoei. Baserriaren etorkizunarekin kezkatuta dauden hainbat lagunek Sainzigarrenearen Bizirik plataforma sortu dute eta maiatzetik hona 5.000 sinadura baino gehiago bildu dituzte Gurutxet familiaren alde; kopuru esanguratsua, Hondarribiak 16.000 biztanle dituela kontuan izanda.

Herriko lehen sektorea ikusten dute arriskuan horietako askok, baita Hondarribiko Udalean ordezkariak duten alderdi politiko guztiek ere. Apirilaren 20an aho batez onartu zuten adierazpenak aferaren “aspektu soziala” azpimarratzen du. Baserriko maizterren lanak

Mari Carmen Gurutxetek uste du Sainzigarrenearen baserritik botatzen badituzte, etxaldearen hondamendia ekarriko duela. Argazkian Bekoborda baserriaren ondoan ageri da. Baserri horretan hiru belaunaldiz bizi izan ziren maizterrek joatea erabaki zuten Jauregi familiaren jarreraz aspertuta. Hondatzen ari da pixkanaka.

herriari “onura objektiboa” egiten diola dio adierazpenak eta kanporatze honek Sainzigarreneako nekazal jardueraren amaiera ekar lezakeela, baita baserria bera hondatzea ere.

Susmoa baino gehiago da Udalaren adierazpen horretan jasotakoa, ez baita herriko baserri bateko maizterrek etxetik botatzen dituzten lehenbiziko aldia. Nagusi berdinek, Jauregi familiakoei, antzeko prozedurekin hustu dituzte lehenago beste hainbat etxalde ere. Eta hustu ondoren, belarrak, sasiak eta goroldioak irentsi ditu, inork zaintzen ez dituelako.

Autoa hartu eta Sainzigarrenearen inguruko mendi-bideetatik ibiliz gero ez da zaila horietako batzuen egoera zein den ikustea: Bekoborda, Kostonea, Maikinenea... Miserebea baserrian hasi dugu ibilbide desolagarria. Baratzetik hasi eta etxeko eskaileraraino sasiak hartua dago, laharrek etxe parean dauden arbolak ito behar dituzte. Katu gris bat, bisitaren lekuko bakar. Baserriko maizterra, Josefina Amorrortu, prozedura judizialik gabe kanporatu zutela azaldu du Gurutxetek, senarra hil zitzaionean bertan bizitzen jarraitzeko eskubiderik ez zeukala esanda.

Maria Angeles Garmendia Bekobordan bizi izan zen familia bateko hirugarren belaunaldikoa da, baina Sainzigarreneakoei gertatu bezala, Jauregi familiak ez zien etxea erosteko aukerarik eman. “Esan bai, eta gero zer? Gero berriz ere atzera. Esposatu ginen eta hiru edo lau urtera senarrari eskaini zion terreno bat, gure etxea egiteko. Guk etxebizi-



tza bat genuen eresia, eta hura saldu genuen, pentsatuz gizon honek aukera emango zigula”. Baina notaritzara joan ondoren, atzera bota zen Jauregi.

“Ez zen posible ezer egitea. Egun batean hitza alde batera ematen bazuten, ondoko egunean beste aldera, eta azkenerako senarrak esan zuen ‘hortxe geratuko zara ba, baserriarekin’. Eta hor dago, ia erorian”. Bederatzi urte pasa dira orduz geroztik eta Garmendia bizi zen baserria ere egoera oso txarrean dago. Horman gora doan huntzak denborarekin eraikin osoa jan behar duela dirudi. Garmendiaren familia han bizi zen bitartean lan asko egin ziren etxean, denak ere maizterren patrikatik ordainduak. “Ura ere guk sartu genuen baserrian” azaldu du. “Eta etxe-ko itoginak eta teilatuak eta dena nire senarrak konpondu du”.

Déjà vu

Maikinenea baserriari aurpegia garbitu diote salgai dagoelako, baina lehen begi kolpean antzematen zaio ez duela inork bizi. Bi negutegi handi edukitzen zituen ondoan, baserrian lan egiten zuten maizterrek Eroski supermerkatuari saltzen zizkioten han landutakoak. Bekobordakoak eta Sainzigarreneakoek bezala, Maikinenea-koek ere hitz egin zuten Josetxo Jauregiarekin baserria erosteaz. Historia bera kontatu digute: tasazioak egin eta prezioa negoziatzeraino iritsi zirela. Gero jabeak atzera egin eta maizter jarraitu zuten. Eta goizetik gauera, kalera. Sainzigarreneakoak orain pasatzen ari direna duela hamar bat urte jasan zuen Kontsuelok: “Amona bizi zen artean errespetatu gintuzten” azaldu du telefonoaren beste aldetik. “Baina amona hil zen eta zortzi egunera,

Maikinenea baserria. Duela hamar urte Sainzigarreneakoen prozesu bera erabiliz kanporatu zituzten hango maizterrak. Etxeari aurpegia garbitu dioten arren, antzematen da ez dela inor bizi.

Sainzigarreneako maizterrek baserria erosi nahi izan zuten 1980ko hamarkadan; prezioa adostu ondoren jabeek ezetz esan zuten, baina lasai egoteko

atera behar genuela esaten hasi ziren, bidali gintuzten arte”.

Saiatu ziren bizilagunekin elkar hartuta zer edo zer egiten, baina ez zuten lortu. “Oraindik denbora bazegoen, baina jendea ez zegoen ados. Abokatua ez genuela hartu behar, txarrean ez genuela ezer aterako; baina onean ere ez genuen ezer lortu. Ezin izan genuen ezer egin”. Baserria garbi utzi behar zutela esan zieten, negutegiak eta denak kenduta. “Egia esatea nahi baduzu, ezin dut hara joan” dio Kontsuelok, baserria nola dagoen ikusteko inoiz itzuli ote den galdetuta. “Atera ginen bezala atera eta gero... Ez, ez naiz izan, nire seme-alabak joaten dira batzuetan, baina nik ez dut batere gogoko”.

Baserri horietako maizterren-tzat berandu da honezkero. Ez dira itzuliko urtetan biziz bete zituzten etxeetara. Jabeek lortuko dute agian horiek saltzea; txarrenera, Kostonearen patua izango dute eta hemendik urte batzuetara zaila izango da desberdintzea non hasten den baserria eta non bukatzen den landaretza

—ikusi aurreko orrialdeetako argazkiak—. Hondamendi hori epaitegien babespean gertatzen ari da, jabetza pribatuaren eskubidea lehenesten delako eraikinen eta lurren erabilpenak gizar-teari ekartzen dion onuraren aurretik. Zerbait gaizki, oso gaizki dabil Sainzigarreneakoa bezalako aferak sortu eta 105 urtez baserria eta bere lurak zaindu dituen familia inolako babesik gabe, herri-mobilizazioak lor dezakeenaren menpe geratzen baldin bada. Baina hala ere Gurutxetek ez du esperantza galdu. Baserria du bizitza eta bizirik iraun nahi du Sainzigarreneko baserriak ere. ■



Ferran Adrià

«Kreatibitatea babak eltzetik ateratzea da»

Lanparatik atera eta jainua hizketan hasi zen.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

...

Ez galdetu 18 urterekin enpresaritzan matrikulatu beharrean zergatik hasi nintzen platerak garbitzen kostako hotel batean. Ez dakit, ezin dut esplikatatu. Ezin duzu gertatzen zaizun guztia azaldu. Hor daude *feeling*-a, sena... Innobazioaz eta sorkuntzaz hitz egitean ezin da ezer orokortu, kasu bakoitza bakarra da, herrialde edo diziplina bakoitza ezberdina. Nik ez dut maisurik izan, eta 22 urterekin Bulli jatetxeko arduradunetako bat izateak gauzen zergatiaz gogoetazera eraman nau. Altxor izugarria da hori, gehiegi irakasten eta erakusten dizutenean ez baitituzu zerbitzatzen dizkizuten erantzunak zalantzan jartzen. Ezagutzen dauzkadan mugak dauzkat sorkuntzan. Ezagutzarik ez duenak kopian egin du, edo okerrago, autokopiatzen da. Pan Tomacaren berri ez daukanari ogia eta tomatea nahasteko burutapen distiratsua otutzen bazaio barregarri geratuko da innobatzen ari delakoan. Ez gaitezen engaina, ezagutzak zabaltzen ditu sorkuntzaren atak.

Informazio gaidosiak ezagutza ito dezake?

Jakina, baina era berean orain dela 50 urte baino askoz ezagutza handiagoa eta eskuragarriagoa daukagu. Orduan gutxiengo batek zeukan fantasiako liburuak irakurtzeko edo karrera bat ikasteko aukera. Horrek ez du kentzen Internetek ikusmira berri bati so jarri gaituela, eta zerumuga berri orok irizpide egokitzea eskatzen duela. Ikerketa eta kreatibitatea nahasteko bekak duen gizaratean bizi gara, baina oso ezagutza premia desberdineko alorrak dira. Esaterako, nik zertarako jakin behar dut errege bisigodoen historia edo 1970eko Barça-ren hamaikakoa? Ni ez naiz

ez historialaria ezta kirol kazetaria ere, eta horri buruzko plater bat sortu beharko banu hortxe daukat Wikipedia. Oinarri kultural orokorra zor diogu gure buruari, baina irizpide zorrotzak eta behar duzuna aurkitzeko tresnak menperatzea dira ibilbidearen iparrak. Hori bai, behin aurrera jotzeko erabakia harturik ezin duzu hutsik egin, ez daukazu hanka sartzeko eskubiderik.

Zer esan nahi du hanka-sartzeak zuena bezalako elite hauskor eta lehiakorrean?

Erratzea bidearen parte da, soluzioa seinaltzen dizuna, baina oso argi izan behar duzu non huts egin dezakezun eta non ez. Txime-taraino zorpetuta sortu duzun enpresa batean ezin zara okertu, baina jatetxe batean plater bat ateratzerakoan nahasten bazara ez da deus gertatzen. Uneoro hanka sartzeko duzun tartearen jabe izan behar duzu, baina naturalki, senez. Gertatzen dena da egun

Nortasun agiria

1962ko maiatzaren 14an, Hospitalet de Llobregat (Katalunia) sortu zen sukaldaria. Berak zuzentzen zuen Bulli bost aldiz munduko jate-txe onena izendatu zuten, eta 2011n ostatua itxi eta Bulli fundazioa sortzeko bi urte sabatiko hartu zituen. Liburu askoren egilea eta *El Bulli: cooking in Progress* dokumentalaren inspiratzailea da. Bere izena daramaten katedra andana dago munduan, eta unibertsitate bat baino gehiagotan jaso du Doctor Honoris Causa izendapena.





innobazioa neurritz kanpo mitifikatzen dela, lainoetara igota dagoela, baina kreatibitatea babak eltzetik ateratzea da. Zergatik uste duzu historiako asmakizunik preziatuena sua dela? Ematen du sorkuntzari buruz hitz egiten dugunok dena hitz korapilatsu eta konplexuekin azaldu behar dugula entzuleek aparteokoak garela sinetsi dezaten. Geroz eta gehiagotan gertatzen zait kreatibitateari buruzko hitzaldietara joan eta piperrik ez ulertzea. Horrek ez du balio. Esplikatu behar dena da bakoitzak inobatu dezakeela bere bizitzan, bere haurrak hezteko maneran, bere agenda antolatu eta kudeatzeko eran... Inobatzeta zure DNAn badago berez aterako zaizu, oharkabean. Horretarako aski da dibertitzen laketzea, arriskuaren bertigoa estimatzea, eta etengabe gauzen zergatiaren bila aritzea. Hori jolasa da, pasioa, eta hor ezinbestekoa da hanka-sartzea.

Zergatik da garrantzitsuagoa diskurtsoa jarduera bera baino?

Existitu nahi baduzu ezinbestekoa delako diskurtso bat izatea. Hori bai, ezin zintezke hipokrita izan. Nik ez diot inori ipurdirik miatzatuko ez dakit nongo azalean ateratzeagatik edo erreportaje bat egin diezadaten. Asko dira hala jokutzen dutenak, eta horregatik ez zait batere gustatzen proiektio mediatiakoa. Nik egiten dudana konpartitu eta transmititu nahi dut, baina nire elkarrizketak unean egiten ari naizenaren isla baizik ez dira. Gaur egia absolututzat daukadana bihar fartsatzat izan dezaket. Kreatibitateak hanka sartzeko eta iritziz aldatzeko aukera izatea esan nahi du. Sortzen ari denaren diskurtsoa etengabe aldatzen da. Medioen aurrean jarriz nire hanka-sartzeak ere konpartitu nahi ditudala onartzen dut. Gertatzen dena da Internetekin bakoitzak sortzen duela bere notizia eta zuk ezin duzula kontrolatu zutaz esango dutena. Horregatik, ustez dagokizuna egin behar duzu, egiten duzunaren ondorioak ezingo dituzula kontrolatu jakinik. Horrek etikoa eta zintzoa izatera behartzen zaitu, nahiz eta batzuetan gizarteak eta inguruak bestelako tentazioetara bultzatu. Nik garbi daukat pertsona ondratua naizela, baina ene bizitzaren zenbait pasarte analizatzean, zirkunstantziak eta inguruak desbideratu naute-la jabetzen naiz.

Presio horrek, inguru horrek, zerikusia dauka Bulli jatetxea ixteko erabakian?

Taldeak, nik barne, eskatutako aldaketa izan da. Gustatzen zaiguna egiteko bide berriak behar genituen, eta batez ere, martxa gizatiarragoa. Batetik, 15 Champions League irabazita geunden, eta sistemak, inguruak, ezin du

hainbesteko arrakastarik jasan. Bestetik, monotonian eta inertzian jausita genbiltzan. Bagenekien urtean 120-130 plater sortuko genituela, urte batzuk besteak baino emankorragoak izango zirela, eta azkenerako aspertu egiten ginen. Errazena dena utzi eta kontutik bizitzea zatekeen, 50 urterekin erretiratu eta denbora pasatzeko pare bat jatetxetan aholkulari izan eta munduan zehar konferentziak emanez ibiltzea. Hori eginda orain baino lan gutxiago eginez diru gehiago irabaziko nukeen segur aski. Izan ere, 2009ko azaroaren 20an bi urte sabatiko hartu behar nituela erabakitzean, ez nekien zer egingo genuen, fundazioa eta kreatibitatearen zentroa eraikitzea subkontzientean zegoen ideia baino ez zen. Egun, hori gorpuzten ari gara, Bulli jate-txea baino asmo liluragarriago, garrantzitsuago eta esanguratsua- goa egitea dugu xede. Horrek pizten gaitu, horrek biziarazi, eta badakigu gure ustez hitz horien mailara heltzen garen arte ez dugula atsedenik izango.

“Norbaitek azaldu beharko dit zergatik lotzen den beti ondo jatea aberastasun eta glamourrarekin”

Guardiolarekin ari naizela iruditzen zait...

Ez da kasualitatea lagunak izan eta balore asko konpartitzea. Oso mundu desberdinetan bizi gara baina mundu horiei aurre egiteko moduan bat egiten dugu. Biok diogu ez direla gure taldeak, gu taldearen parte garela baizik. Esaterako, niri taldean batzuetan Guardiolarena egitea tokatzen zait, inoiz Messirena, eta lantzean behin baita masajistarena ere. Bestetik, zintzotasunean, etikan eta konpartitu nahian bat gatoz. Horrek ez du esan nahi Txanogorritxu garenik, baina garbi daukagu gauzak lortzeko denak ez duela balio, eta pentsamolde zein jokamolde batek egon behar dutela oinarri-oinarrian. Bulliko taldearen estiloa Silicon Valley germano-latinoa dela esango nuke. Alemanen seriotasun kontzeptua daukagu, baina era berean Silicon Valleykoen askatasuna. “Ferran, bihar etxetik

egingo dut lan” abisatzen badidazu ez dago arazorik, baina bilera batera bost minutu berandu bazatoz errespetu falta itzela da lan taldearekiko. Horri gure izaera latina gehitu behar zaio. Barre egitea gustatzen zaigu, dibertitzea, jolas egitea, martxa... Ez gara alferrik garen tokikoak.

Ez dira garai onenak identitatearentzat.

Nire plateretan ez dago ideologiarik, bizitza ulertzeko modu bat baizik. Nik ez dakit ezkerrekoa edo eskuinekoa naizen, ez dakit mundu honetan abertzalea izateak zer esan nahi duen... Sentimendu bat daukat, bartzelonarra sentitzen naiz, katalana, baina familia daukat Espainian, eta zoritxarrez, Angela Merkelek agintzen dit. Identitate krisi basatia bizi dugu. Ez dakit non bukatuko dugun, ez dakit berriz agintzen utziko diguten. Ez gara konturatu mundua aldatzen ari zela, eta transformazioak gauzak gertatu aurretik egin behar dira, ez gertatzen ari direnean. Beranduegi zabaldu ditugu begiak, eta eraldaketa batzuk ezin dira korrika eta presaka egin. “Nola arraio aterako gara hemendik?” galdetzen diogu elkarri, baina inork ez dauka arrastorik. Garbi dagoena da zortea izan dugunok sekula baino gehiago lagundu eta kolaboratu beharko dugula, eta zulotik irteteko, momentuz erantzuten ez dakizkigun galdera askori atzeman beharko diegula arrapostua.

Lurrareriko urruntzeak edo “munduko hiritar” izaerak ere geroz eta galdera gehiago sortzen ditu.

New Yorketik Los Angelesera lanera joatea Bartzelonatik San Petersburgora mugitzea bezalakoxea da, baina eurentzat berezkoa da eta guretzat ez. Gure sustraitze kontzeptua kinka larrian dago, ezinezko bihurtu baita zirkulu batean betiko errotzea. Esaterako, bioteknologiaren zale itsu bat bazara eta puntako

lagunekin euskaraz

interneten ere bai!

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

egituretan lan egin nahi baduzu, derrigortuta zaude hemendik ospa egitera. Demagun, bestela, jatetxe bat ireki nahi duzula eta zure hiria ostatuz gainezka egitear dagoela baina beste 100 pintxo jatetxerentzako lekua dagoela Pekinen. Pekinera joateak munduko erabakirik naturalena behar luke. Hori hala, deserrotze fisikoak ez dauka zerikusirik lurrarekiko urruntzearekin. Are gehiago, esango nuke balorazio objektiboek ez dutela halakorik islatzen. Orain dela 50 urte oso jende gutxi zeukan baratzea. Gaur egun orduan baino askoz hobeto eta sanoago jaten da. Arazoa beste bat da: dauzkagun baliabide eta aukerak ez ditugula behar bezainbat aprobetxatzen. Alegia, ongi jaten dugula baina ez jan ahalko genukeen bezain ongi. Hezkuntzan egiten dugu herren. Txikitan batuketak

eta kenketak ikasten baditugu heldutan batuketak eta kenketak jakingo ditugu, eta txikitan garrantzitsua ondo jatea dela irakasten badiogude heldutan ondo jan ahal izateko baliabideak ustiatzen jakingo dugu. Ados, ez dugu ahantzi behar orain 30-40 urte arazoa ez zela ondo jatea, jan ahal izatea baizik, baina norbaitek azaldu beharko dit zergatik lotzen den beti ondo jatea aberastasun eta glamourarekin. Ez dauka zerikusirik. Patatak ondo edo gaizki prestatu ditzakezu eta hori heziketa da.

Azken beltzean, ez al gara etengabe denbora kontsumitzen ari?

Bai, baina denbora kontsumitzeko duzun jarreran dago gakoa. Zure elkarrizketa proposamenari baiezkua ematen diodanean pentsa dezaket ordubete alferrik galduko dudala, edo kontrakoa, zure galderek hausnarketarako balioko didatela eta psikologoaren kontsulta baino merkeago aterako zaidala. Garbi daukat gizakiarentzat ezinbestekoa dela gusatzan zaiona egitea, bere jarduerari etekina ateratzea. Maiz pentsatzen dut gizakiari ekarpenik egiten ez dioten lan mekaniko eta aspergarriak ordezkatu behar lituzkeela gizarteak. Horixe da zoriona lortzeko bidea. Autobideko ordain-lekuko langilea asperdurara kondenatuta dago, bere baitan duen pasio



AZKEN HITZA

Irudia

“Ematen duena baino askoz industria txikiagoa da gurea. Cristiano Ronaldo edo Messiren parean gaudela dirudi, baina gu egunero 12-13 ordu lan egiten dugun beharginak gara, telebistan gure ordu libreetan ateratzen garenak. Edozein arlotan munduko hamar onenetan egotea aski da dirutzak irabazteko, baina gurean ez. Sukaldariaren irudi *glamurosoa* ez da errealia”.

guztia lanean jarrita ere. Nire esku balego, gizakiari deus ekarri ezin dioten lanak mekanizatuko nituzke, eta horren ordez jendea sorora bidali. Zure jarduerak ez badizu inolako aberastasunik sortzen, denbora hutsa kontsumitzen duzu, eta denbora hutsak nekez asebetetzen du. Agian, beste zutabe eta printzipio batzuetan oinarritzen dira gizartearen zoriona eta oreka.

Bulli fundazioa izango denaren zutabeak aurreraterik bai?

Hazkunde organikoa izango duen proiektua da, hemendik 40 urtera, gu zulora bidean egongo garenean ere, hazteko bokazioa izango duena. Hazkunde organiko horretan ikasten joango gara, mundua nondik eta nola aldatuko den aurreikusten saiatuz, eta araberako eraldatzeak diseinatuz. Gure

zentroa kreatibitatearen efizientzia eta eragin-kortasunean erreferentea izatea nahi dugu. Horregatik Bulli jatetxearen espirituan eta sukaldaritzaren lengoaiari oinarritzen den sorkuntzaren prozesu, efizientzia eta auditoria gunea izango gara. Azken emaitza sukaldaritzaren munduari eskainiko badiogu ere, denen esku lagako ditugu ikerketetako ondorioak, eta urtez urte gure ideia laborategiko susmoak frogatzen joango gara. Esaterako, zein da talentua bilatzeko modu eraginkorrena? Nola sortzen da zorrotzen, lan jarraikiaren bidez ala bulkadaka? Zein da kreatibitatearen ordu-tegia? Komeni da ordutegiari eustea ala aldatzeak piztu egiten gaitu? Galderei erantzun ahala innoibatzaile sare bat ehuntzen joango gara, eta horiek emango digute ikerketa sako-nagoetara jotzeko bidea eta modua. Gure lanaren emaitza eta ondorioak Interneten zintzilikatuko ditugu eta pixkanaka Bullipedia gorpuzten joango gara. Gure burua gauzen zergatiari buruzko galderekin entretenitzen segi nahi dugu, horixe baita Bulli jatetxearen espirituak irauteko bermea. Kontzeptu horiek desmitifikatu, lurrera ekarri, eta jendea ez beldurtzeko gisan agertzen asmatzen badugu, ate asko ireki eta soluzio anitz mahaigainetarako ditugulakoan nago. ■



• Andeka Larrea •

«Hirigintza da gatazka soziala desaktibatzeko bide eraginkorrenetakoa»

Hainbat egileren artean idatzitako *Euskal Hiria* saiakeraren koordinatzaile nagusia da Andeka Larrea antropologoa (Bilbo, 1972). Aurretik, 2007an, *Bilbao y su doble* (Bilbo eta beraren doblea) idatzi zuen, Garikoitz Gamarrarekin batera. Bizkaiko hiriburuaren azken hamarkadetako eraldaketa ikuspuntu kritikoz aztertu zuten orduko hartan. *Euskal Hiria* obran, analisi hori Euskal Herriko hiriburu guztietara zabaldu dute. Hala ere, Bilboko adibideaz mintzatu zaigu batez ere Larrea, horixe baita ondoen ezagutzen duena.

UNAI BREA

Argazkiak: Iñigo Azkona



Euskal hirien transformazioaren analisi kritikoa egin nahi izan duzue. Zerk bultzatuta?

Bilbao y su doble argitaratu genuenean, espazio publikoaren galera eta pribatizazioa kritikatu genituen. Orain Euskal Hiria kontzeptua izan dugu hizpide, hasiera batean

Bernardo Atxagak sortutako ideia, baina gerora Eusko Jaurlaritzak bereganatu zuena bere hirigintza planifikazioa izendatzeko. Jaurlaritzaren Euskal Hiria proiektu hori –gobernu aldaketa eta gero Euskal Hiria NET berrizendatua izan zena– goitik zuzen-



dutako egitasmoa da, benetako beharrizanei jaramon gutxi egiten diona; beste urrats bat da kapitalismoak hiriak eraldatzeko daukan beharrizan horretan.

Liburuan diozue, eraldaketaren ondorioetako bat privatizazio prozesu larria da.

Bilbo eraldatzeko prozesu osoa entitate bik eraman dute aurrera, elkarte publiko-privatu modura aurkezten direnak baina praktikan talde pribatu modura funtzionatu dutenak. Hasieran Bilbao Metropoli-30 izan zen, eta gero Bilbao Ría 2000k hartu zuen erreleboa. Hiritarrek ez dute parte hartzen hor hartzen diren erabakietan. Bestalde, espazio publi-

koaren beraren privatizazioa dago. Bilbon, Abandoibarra bezain espazio garrantzitsuan aisialdirako eta kontsumorako lekuak egongo direla erabakitzen denean, espazio hori privatizatzen ari da nolabait, bestelako erabilera batzuk galarazten direlako. Horrek, gainera, beste estrategia ezutuago batzuk dakartza atzetik, espazioaren zaintzarekin zerikusia daukatenak. Bilbon prozesu hori itxi duena Espazio Publikoaren Ordenantza izan da, oztopo asko jartzen dizkiena erakundeek edo enpresa pribatuek antolatutakoak ez diren ekimenei.

Hiriaren diseinuak herritarren portaera bideratu nahi duela diozue.

Espazio Publikoaren Ordenantzak, adibidez, modu kontzientean egiten du hori. Baina bestela ere, hiriaren diseinua arkitektura ikusgarrira eta kontsumora bideratzen bada, argi dago hiritarren bizimodua aldatu nahi dela, ohitura jakin batzuk sustatuz. Jakina, zaila da planifikazio batean horrelakorik idatzita egotea. Baina ondorioa berdina da. Planifikatzaileek hiriko bizimoduaren ikuspegi murriztailea daukate. Bilbon, erakundeak hamaika modura saiatu izan dira gatazka soziala desaktibatzen; hirigintzarena azkenetakoa da, eta pena ematen dit baina susmoa dut eraginkorrenetakoa ere badela.

Zergatik?

Espazioak aldatzen dira, agertzen dira arkitektura berriak, eta gehienok, hasieran kritikagoak izan bagaitezke ere, azkenean onartu egiten dugu, eta horrekin batera ohiturak aldatzen ditugu. Hala ere, hiriaren bitzta soziala guztiz desagertzea ezinezkoa da, hirian beti sortzen dira aurreikusita ez zeuden gertakariak.

Euskal Herriko beste hiri batzuetan ez da eraldatu espazio industrial, halakorik ez zegoelako, baina denetan igartzen da Bilboko eskema bertsua: ospe handiko arkitektoa, geure burua saltzeko balio digun ikonoa... Alegia, liburuan aipatzen duzuen hirien marketina.

Oro har hala izaten ari da, euskal hirietara, beren historiagatik, joera hori apur bat berandu heldu bazen ere. Munduko beste hiriek begiratu eta gauza bera ikusten da: arkitekto entzutetsuak, ikonizazioa, eta gero hori saltzea kanpoan, turistak zein kapitala erakartzeko. Hiria zerbait salgarri bihurtzen da, eta bezeroak, turistak ez ezik, enpresak ere badira.

Bilbon, bistan dena, marketin operazio hori egin da. Nolako arrakasta izan du?

Handia. Interbentzio horiek guztiak jendartearen erresistentzia handirik gabe egin ahal izan dira. Beste kontu bat da horrek gero, epe ertainean, errentagarritasuna edukiko duen, niri behintzat interesatzen ez zaidan ikuspuntu ekonomikotik aztertuta. Eta ikusi beharko da nola amaituko duten sortutako espazio berri horiek. Pentsatzen dut Bilbao Ría 2000ko planifikatzaileak, eta Udala, pozik egongo direla, nahi izan duten guztia egin ahal izan dutelako, eta gainera oso ondo saldu dutelako kanpoan Bilboren irudia.

Bilbo berri horren ideiak hain aurkari gutxi eduki izanak harritzen zaitu?

Bai. Guggenheim eraikitzen hasi zirenean kontrako mugimendua egon zen, baina niri beti iruditu zait gizarte mugimendua, auzokide elkarteak... berandu jabetu zirela eraldaketaren garrantziaz, hau da, ez ziren garaiz konturatu eraldaketa ere gertakari politikoa zela, beste edozein bezain garrantzitsua.

Liburuaren lehenengo zatian azpimarratu egin duzue hainbat hamarkadatan egon zen urbanismo kontrolgabearen garrantzia, haren ondorioak jasaten ari baikara oraindik.

Izan ere, jende asko bizi da oraindik 50 eta 60ko hamarkadetan eraikitako etxebizitzetan. Garai hartan egitura jakina eman zitzaion hiriri, eta horrek iraun egiten du gaur egun, aldatzea oso zaila da eta. Hiri egitura horren erruz, esaterako, Bilbo Handian, oso handia ez izanda, biztanleak oso sakabanatuta daude, eta auzoak elkarrekin oso txarto komunikatuta.

EAEko hiru hiriburuen arteko elkarrekintzen taula argitaratu duzue eta oso gutxi dira. Nola ezkondu datu horrekin Jaurlaritzaren Euskal Hiria proiektua, hau da, hiru hiriburuek hiri bakarra osatzea?

“Hiriaren diseinua arkitektura ikusgarri eta kontsumora bideratzen bada, argi dago hiritarren bizimodua aldatu nahi dela, ohitura jakin batzuk sustatuz”

Momentuz proiektua besterik ez da, eta hala izango da AHT amaitzen ez duten bitartean. EAEko hiriburu bakoitza beregaina da, uhar-te bat bezala funtzionatzen du. Hori aldatzeko hiruren arteko lotura sustatu behar da, eta horretarako funtsezkotzat jotzen dute AHT.

Horrela esanda, ematen du Euskal Hiria egitasmoa AHT egiteko justifikazioa izan daitekeela, kontrara baino.

Bien arteko lotura oso estua da eta elkar behar dute, baina bai, batez ere AHTk behar du Euskal Hiriaren ideia. Zilegitasuna emango dion diskurtsoa da.

Baina Euskal Hiri baten beharrik ez da sumatzen jendartearen.

Ez, ez da beharrezkotzat jotzen hiriak lotzea. Lehenik eta behin, ez da beharrezkotzat jotzen AHT bera. AHT, edozein ikuspuntutik begiratuta, zergatik ez den beharrezkoa sobera azalduta dago honezkero. Baina proiektu biak erabat lotuta daude. Eta bestalde, politikoki errentagarria da kosmopolitismoaren mezua, denok gara hiritarrak eta abar. Hiria eta herria bereizten dituen dikotomia hori hautsi behar da, falazia hutsa da.

Hitz egin dugun hau guztia, azken batean, negozio kontua da?

Erabat. Kapitalismoaren presio espaziala hirigintza da gehienbat. Diruaz hitz egiten ari gara, diru publikoa esku pribatuetara aldatzeaz, batzue-

tan beharrian sozialak asetzeko –ez asetzera besterik ez genuen behar!–, eta bestetan zuzenean negozioa egiteko. ■



CAMPOS

1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERIK ONENA BILATZEN
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com

Fermin Erloiti

KAZETARIA

Zer da nafarra izatea?

Euskal Herriko hainbat tokitako festetan zezen eta bigantxak karrikan goiti eta beheiti hasiak dira, lasterkarien atzetik. Argi dago, beraz, guztia harrapatzen duen krisi zitalak ez duela festa klase hau adarkatu, udalak diruz urri ibiliagatik ezin baitzaio *kultur tradizioari* traizioa egin, hori besterik ez genuen behar. Diru-partida horiek dira bere horretan dirauten bakarrenetakoak, guztion lasaitasunerako.

ETBren ikusle guztiek ongi dakitenez, Faltzeskoa da Euskal Herriko entzierrorik xebleenetakoa, bigantxak karrikan ibili beharrean menditik jaisten baitira bidexka harritsuetan barna, herrira heldu arte. Animaliak askatu aurretik, lasterkariek kantuz babesa eskatzen diote birjinari, Iruñean historiarik gabeko San Fermi egiten zaion bezala.

“Nafarra izatea zer da?” galderari erantzutea hitz emana zigun saioaren iragarkia egunkarian ikusi berria, Nafarroa eguraldi mapan ez ezik informazioetan ere lanbrotsu utzi duen ETB2 piztean horixe agertu zitzaidan: Faltzesko entzierroraren inguruko azalpenak eta kantua, dena herriko jatorren ahotik.

Gauza jakina da liburu edo filmetan bezala, telebista saioetan ere hasiera funtsezkoa izaten dela datorrenaren interesa, ikuspuntua,



JOSU SANTESTEBAN

seriotasuna eta tonuaz ohartzeko. Zer esanik ez dago: saioak bide beretik jo zuten, oso noizean behin gogoetari lekutzoren bat utzirik, baina azkar demonio sinplekariaren bide zabalera bueltatzeko. Nafarroaz iritzi kontrajarriak dituzten bi politikariren iritziez gain, entzierrora, harri-jasotzaileak, jotak bertsolariak eta karrikan grabaturiko elkarrizketa sakon horietakoak: “Nafarra izatea zer den? Hori ezin da azaldu”. Hortxe, argi eta garbi, saioaren helburua zenbateraino bete zen, elkarrizketatu batek errana.

Pierre Bordieu soziologoak telebistari buruzko liburu oso interesgarria idatzi zuen: *Sur la télévision* (1996), gaztelaniaz ere argitaratua. Frantziarrak, bertan, argi eta gordin aletu zituen eragin handiko komunikabidearen gaitzak: sentsazionalismo eta ikuskizunaren aldeko apustuak benetako kazetaritza desagerrarazi du; gogoeta bazterturik, emozioa arrazoiaren gainetik jartzan da, eta edukia ikuskizunaren esanetara makurrarazten.

Bordieuren liburua argitaratu zenetik, egoera nabarmen aldatu da. Txarrerako, jakina. Izan ere, geroztik telebista eskaintza adina handitu baita zabor maila, baita guztiz zokorturik dauden ustezko kazetaritza-saio serioetan ere. ■



« 'Nafarra izatea zer den?

Hori ezin da azaldu'.

Hortxe, argi eta garbi,

saioaren helburua

zenbateraino bete zen,

elkarrizketatu

batek errana



TXANDAN

Juanva Makuso



Eskatzen da. Eta eman edo ez, bere ondorioa du. Apaltasuna eskatzen du barkamena eskatzeak, baita zintzotasuna ere. Eta egiatik eginga izatea. Barkamena eskatzea askatasun ariketa da.

Berekoikeriatik oso urrun dagoena. Barkamena eskatzeak ez baitakar, bestearen barkamena. Baldintza hauek guztiak barkamenaren baitan aurkitzen dira. Eta barkamena eskatzen duenak ausardia erakusten du. Eta barkamena eskatzen da, aurretik –gizakia morala izanda– ekintza bat egon delako. Eta ekintza guztiek justifikazio bat daukate, behin-

Barkamena

tzat ekintza horren egileentzat. Eta noski, ekintzak, ondorioak. Ondorioetatik etor daiteke etikak eskatzen duen gogoeta. Eta hemen beste elementu bat sartzen da. Barkamena eskatzen da, ni batetik, subjektu bezala. Eta bestea hor dago. Kaltetua izan dena. Eta azkenean, gu bat ere. Jose Luis Alvarez Santacristinak gogoeta sakon bat egin du, bestea kontuan hartuta. Gogoeta izan den heinean, ez dago eztabaidarik, eztabaidak gogoeta eskatzen baitu, eta ez zarata. Gizarte bezala frakasatzen ari garen heinean, barkamena eskatu behar genuke. ■





ATZEMAN JUGU
JAINKOAREN
PARTIKULA ...

... ETA ESKOZIAR
IZENA DAUKA!

HIGGS!

... BEDEREN, IZAN,
BADA, EZ NI BEZALA ...

HIGGS!

Sanfermin hauetan ALJERIA independenteak 50 URTE

Koldo Aldalur

KAZETARIA

Palestina

S

inbologia hutsean erortzen ez bada, ideia oso polita izan daiteke. Iparraldean habia duen Frontball Development erakundea pilota jokoa munduko hainbat bazterretara zabaltu nahian dabil; bazterretako bazterretara hain zuzen ere.

Pilotan jokatzeko hiru gauza behar omen dira: pilota, horma eta gogo. Palestinan izan berri dira. Pilotak hemendik eraman zituzten; han, di-da batean, kiroldegi moduko batean horma pare bat eraiki, eta gogo gainezka aurkitu zuten Hebron hegoaldean dagoen Al Fawwar errefuxiatu eremuan. Pilota eskola bat sortu zuten, nola edo hala, bertako gazte eta ez hain gazteekin; eta pilotakada bakoitzarekin urrats bat egin zuten hain kultura ezberdinen arteko bidea laburtzeko. Festa borobiltzeko, hemendik hara joandako pilotariekin torneotxo bat antolatu zuten; eta hauek eta haiek denak gustura.

2008an jaio zen Frontball Development erakundea, eta harrezkerro, helburu sozialak eta pilotak duintasunaren poltsatxoan hartuta, gurea, eta itxuraz beste hainbaten kirola den pilota jokoa auzo gogorrenetara zabaltzen saiatu dira: Mexikon San Juan de Ixtayopan izan dira; Tepito-ko errealtate krudela ezagutu dute; eta New Yorkeko Brooklyneko kale kantoietan ere izan dira aterperik ez dutenei, gutxienez, pilota hotsak berez duen



DANI BLANCO

aterpea eskaintzen. Argentinan, auskalo non; Italian, Paranan; Bartzelonako Nou Barris, eta abar. Hurrengoan, Brasilen izango omen dira. Geroxeago, baina gehiegi luzatu gabe, Jordanian eta Libanon. Etsi gabe, hormak eraiki, eskolak antolatu, txapelketa txikiak egin, irakatsi eta ikasiren artean zein tarte txikia dagoen ohartu.

Palestinan, Hebronan, Eremuko Herri Batzordearen begiradapean, pilotan jokatu ahal izateko materialaz gain, zaintzaile pare bat utzi dituzte, hango trebeenak Iparraldera etorriko diren agindua, eta Jerusalem-era eta Betleem-era joateko asmo sendoa.

Sinbologia hutsetik haratago doan egitasmoa dirudi pilota munduko auzo txiroetara zabaltzearena. Errealtatearen ari hauskorrari tiraka, iruditzen zait sarri gure kontzientzia lasaitzeko besterik balio ez duten usoak askatzen ditugula, selekzioaren partidak antolatzen, gutxienez gutxi duten greba egunak aldarrikatzen

Errealtatearen ari hauskorrari
tiraka, iruditzen zait sarri gure
kontzientzia lasaitzeko besterik
balio ez duten usoak askatzen
ditugula, selekzioaren partidak
antolatzen, gutxienez gutxi
duten greba egunak
aldarrikatzen

Arazoa da honezkero Al Fawwar-eko neska-mutilek eraman berri dizkieten pilotak apurtuko zituztela joko berriari gustua hartuta. Ea berriak bidaltzeko eskatzen digutenean gai garen beraien ametsak eta gure aginduak betetzeko. Ondo legoke. ■



Ekain berri

Euskal Kulturaren sustraiak

Sarreraren salmenta | Venta de entradas

ONLINE

www.ekainberri.com

943 86 88 11

ZIRTAK

Julen Galbina

IDAZLEA

Perfekzioa: eskuak (eta III)

Institutu batean, ikasle batek galde-tzen dit gauean izan dudan ametsa gogoratzen ote dudan. Baietz erantzun diot, nora eraman nahi nauen jakin barik. Ametsa idatziz jartzeko gai naizen galdetu dit gero. Ezer erantzun aurretik, akordatu naiz nire ametsa zirimola hutsa zela: pertsonaiak nahasten ziren, lekuak aldatu, eta istorioak ez zuen zentzurik. Aitortu diot, beraz, nekez lortuko dudala irudi-pilaketa absurdu hori idatziz paratzea. Berak, orduan, erantzun dit ez naizela benetako idazlea: “Benetako idazleak badaki ametsak idatziz jartzen”, gehitu du.

Mukizu orojakileak aztoratu egin nau egun osorako. Bale, gaueko ametsi buruz galdetu dit, ez besteei buruz, ezta, oro har, buruan izan ditza-kezun ideiei buruz ere, baina gauza bera dira denak, edo hala interpretatu dut nik: buruan duena idatziz jartzeko gai ez dena, ez da benetako idazlea. Kakanarru halakoa... eta okerrena da egia dela: artelan bat sortu aurretik sumatu-tako edertasunaren perfekzioa eta sorkuntza-prozesuaren amaieran lortzen den emaitza hain daude elkarrengandik urrun, ezen artistak islatu duena bere barruan piztuta-ko su haren txingar dardaratia baino ez baita. Eta gaitzerdi, su horretatik txingarren bat ateratzeko gai bagara. Hain zuzen ere, Julio Ramón Ribeyro idazle peruta-rra barruan geratzen zaizki-gun liburuez mintzo da *La tentación del fracaso* obrako pasarte batean: “Duela gutxi, Cervantes irakurtzen nengoela, harrapatzeko astirik izan ez nuen ufada bat igaro zen nire aurretik (zergatik?, norbaitek eten ninduen, telefonoak jo zuen, ez dakit) zoritxarrez, zeren gogoratzen dut zer bait egiten hasteko bulkada sentitu nuela...




INIGO AZKONA

Gero, dena desegin zen. Denok dugu barruan libururen bat, beharbada liburu handiren bat, baina gure barne-bizitzaren anabasan oso gutxitan azaleratzen da, edo hain azkar agertzen da, arpoiaz jotzeko astirik ere ez dugula izaten”.

Eta diot nik, paperean iltzatutako hitzek ezin badute ufada hori arpoitu, are alferrika-koagoak izango direla airea jaurtitako hitzak, zehaztasunetik hain urrun dauden baina memorian irauteko eginak diruditen berba iheskorrak. Ni txunditu egiten naute ahozkoan ere ondo moldatzen diren idazleak, onak esan nahi dut. Idatzian perfekzioaren bila ibilita, ahozkoan erabiliko dituzun hitzak

hain doiak izango ez direla jakiteak, ez al die beldurrik ematen ahoa zabaldu orduko? Marcel Duchampek esan omen zuen, pentsamenduak hitz eta esaldien bidez isurtzen hasten garen unean, dena doala pikutara. Eta, adibidez, idazle bat hizketan ikusten baduzu, erreparatu bere eskuei. Airean dantzatuko ditu, esan nahi duenari forma eman nahian bezala: idatziz-koan trebeak dira eskuak, ahozkoan baldar-rak eta histrionikoak. Eta erreparatu idaz-leen argazkiei ere: nola jartzen dituzte eskuak? Edo zigarretaren eta kafe-kika-raren aitzakia erabiltzen dute, edo eskua-rekin aho ertza tapatzen dute (irudi sin-boliko ederra: “Ixo, hik idazten baino ez dakik eta!”), edo eskua eskuaren kontra estutzen dute, edo besoak antxumatzen dituzte. Euren lana-besa eskuak izanda, bitxia da argazkietan ez jakitea zer egin hitzak eta ideiak transmititzeko

ezinbestekoak zaizkien hara-gi-puska horiekin. Nik ere ez, esan beharrik ez dago. Hobe, beraz, isilik, eta eskuak poltsikoetan. Hobe besoak, enborra, han-kak eta burua ere poltsiko-an. Hobe plop!, desagertu, ahozkoan bartlebytu, isildu, zertarako hitz egin. Hobe lotan, hobe ametsetan, arkatza beti alboan, badaezpadan. ■



irudia:
Antton Olariaga



BERTSO BERRIAK

Jon Martin

Petrolioaren lioa



XDZ

I

Noizbait zooplakton ta dinosaurio bilakatu omen ziren petrolio baliotsu, lurrazpiko... gizateriaren ustez, garapena orain konturatu egin gara pena ezer ez dela betiko.

IV

Esporta liteke produktu zerrenda ta zein preziotan? zein arduratzen da isuritako mila kez? Ozono geruzan eginaz kilima azken urteetan aldatu da klima baina gure ohiturak ez.

II

Fabrikak, lehergaiak ta automobilak mugitzen ditu gaur erregai fosilak bihurtuz ezinbesteko. Ibili nahi hontan ahalik arinen ia oharkabean bilakatu ginen droga beltz horren mendeko.

V

Politikoeak maiz euren aldarritan begiak energi berriztagarritan baina hitzak hitz oraindik... behar aina plaka ez dituzte eman gero beti hitzak haizeak eraman ta haize errotak geldirik.

III

Mugikortasuna da obsesioa produktuek jaitsi dute prezioa nahi baino gehiago sarri... gure baratzetan etxeak eraiki eta premiazko diren hainbat jaki hegazkinetan ekarri.

VI

Peak Oil-a gainera datorkigulako prestatu gaitezen trantsiziorako Bagara-n adibidean ta itzuli auto-antolakuntzara edo-ta bestela ipiniko gara dinosauruen bidean.

DOINUA: Izan zintezkeenari.

Sorta honi esker irabazi zuen Unesco Etxearen txartela Rio+20 gailurrean blogari aritzeko.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko kaira

Amaiur 2012

Erregerik gabeko erresuma amets

Gogo duenak ikasi eta ekiten du lema antzeman dugu amaiurtarren hitzetan. 1512an erori zen Nafarroako Erresuma. Amaiurtarrek 1522ra arte eutsi zioten Gazteluari. 2012. urtean Haien ametsa gurea da ikuskizuna eratu dute, Pier Paul Berzaitz zuberotarren eskutik.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

AMAIUR 2012. HAIEN AMETSA GUREA DA. 1512an desegiten hasi zena 2012an berregiten ari dira: “Hor, goian zegoen Gazteluko azkeneko bizilagunek Nafarroako Erresuma defendatu zuten, *haien* ametsa galdu zen, eta *gurea* amets hura berreskuratzea da”. Horrela mintzatu zaigu Gaztelu Elkarteko buru Juan Mari Aleman amaiurtarra.

Alemanek eta Kike Otaegi donostiarrak abegi ona egin digute Amaiurren (Nafarroa

Garaia). Amaiur 2012 ikuskizunean parte hartuko duten dantzariak, musikariak eta hauen zuzendariak agurtu ditugu Gure Ametsa frontoian: Pier Paul Berzaitz, Dominique Espil, Edu Murumendiaraz, Karlos Gimenez, bertzeak bertze. Entseatzen utzi ditugu. Alemanek eta Otaegik *Cicerone* lanetan aritzea onartu digute. Amaiurren gairi abiatu gara.

Ikuskizuna jokatuko den lekuan gaude honezkerok, Arretxe etxalde aurreko zelaian. Anfiteatro natural moduko bat da. Harmailak soroan paratuko dituzte eta eszenatokia Arretxe aurrealdean. Ekitaldirako aldagela gisa erabiliko duten etxea Urrutia familiarena da: “Auzolanean ari gara. Bolondres lana da gurea. Herriko zurgina arduratuko da honen guztiaren muntaketaz” dioskute bidaideek.

Amaiurren 250 bizilagun dira. Nekazari-tzak badu munta handia. Errate batera, hiru nekazari txiki elkartu dira berriki eta kooperatiban dihardute. Ardien joareak entzuten ditugu ondoko larretan, artzaintza bizirik dago: “...eta abertzaletasuna ere bai. Amaiur plaza gorria da... Udalerri propioa geneukan, baina orain Azpilikueta dugu gure batzartokia. Azpilikueta azula da, nolabait”, dio Alemanek. Amaiurrek aspaldi galdu zuen herri kategoria. Baztan udalerrian dago egun. Hamabost herrik osatzen dute udala, Elizondo izaki plaza nagusia. Bertan dago Udaletxea: “Hauek denak hidalgoak hituen, ikusi etxeak eta armariak” gehitu du Kike Otaegik. Aspaldiko kontuak dira horiek inondik ere, badira berriagoak horratik.



Dominique Espil eta Pier Paul Berzaitz. Amaiur 2012 ikuskizunaren eragilea eta sortzailea, hurrenez hurren.

Borda Jauregia ondoan gaude, 1702an eraikia. Armategi nagusi izan zen XX. mendean, eta Guardia Zibilaren koartela 1996ra arte. 2005ean Kataluniako elkarte batek erosi zuen hotela bihurtzeko asmoz. Hotela da, baina itxita dago. Garai berean espainolen base militarra egon zen Amaiurren: “Iragan mendearen erdialdean, iparramerikarren eskutik base militarra ezarri zuten Gorramendin, Marshall Planaren garaian. Francok autarkia hautsi zuen AEBek lagunduta. Rota eta Torrejoneko baseak ere ezarri zituzten; erradar handiak zeuden hemen. OTAN tarterko, frantsesak libre antzean zebiltzan nonbait eta Frantzia kontrolatzeko ekimen estrategikoa izan zen mugaldeko basea. SESBeko Nikita Khrustxev Gorreramendiko basea aipatu zuen Nazio Batuen Erakundearen, pentsa”. Baseak ekonomiari ez omen zion deusik ekarri, alabaina, bertako gazteek soldadutza bertan egin zuten luzaz. 1975ean, Franco hiltzean, bertan behera geratu zen basea. Transizio garaia hasi zen.

Gaztelura bisita

Elizondo eta Urdazubi lotzen dituen errepidea –Atsondo mendigaina tarteko– dago gure ezkerraldera. Gaztelu bidean goaz, herria erdibitzen duen karrika nagusitik, aldats goiti: “Erdiko karrika honen modukoak pasabideko herri inportanteetan daude. Herria bi zatitan eraikita dago, karrika bide ardatza izaki. Bideak mugara eramaten zaitu berehala”. Segura herriak ere badu halako tipologia –Gipuzkoa eta Nafarroa artean–. Gaztelatik

Europara zetozen bideak dira. Transakzio ekonomikoak egiten ziren herriotan.

Ermita tiki batean gaude, aldirian. Ezkerrean, gorago, Gaztelua dago. Gaztelu Elkar-teak ermita berritu du auzolanean. Bertatik hasten dira bisita gidatuak, elkarteko kideen eskutik. Amaiur Gazteluaren maketa berria begiztatu dugu, baita hamaika historia liburu ere: “Gaztelua horrela ageri da azken indusketen ondoren. Dena den, indusketak egin ahala eraldatzen joan daiteke. Dokumentazio berria agertuz gero, harresi bat edo bertze aldatzen dute”. Ermita ez da erabiltzen ekimen erlijiosoetarako jada. Sakristia almazena da”. Jimenez Jurío, Pedro Esarte, Tomás Urzainqui eta beste historialariaren lanak daude. Maia herri izenez galdetu diogu Alemani: “Amaiur euskaraz eta Maia erdaraz? Ez da errana Maia erdara denik, Jimenez Juríok hori zioen bederen”. Bitxikeria, bertan dagoen birjina da, katalana. Soldaduska bertan egin zuen katalan batek ekarria. Herriko sarrerako arkuan zegoen. Obretan ari zirela hautsi zuten. Berreskuratu eta moldatu ondoren ermitara ekarri zuten: La Moreneta birjina.

Gaztelu inguruan gaude dagoeneko, harresi aurrietan. Indusketa planoak seinatzen du tokia. Gaztelu Elkar-teak sustatutako lanetako bat da. Zazpigarren indusketa kanpaina da aurtengoa, Aranzadi Zientzia Elkartearen eskutikoa. Logoa eta planoak ageri dira horma-irudian. Indusketaren baimena izateko Vianako Printzea Erakundearen izapideak bete behar ditzute urtero. Gobernuak ez ohi du baimena uztailearen azken eguna arte ematen: “Indusketa arkeologikoetan badago tirabira latza Aranzadi eta Nafarroako instituzioen artean. Iruñeko Gaztelu Enparantzan indusketa egin zenean desadostasun izugarriak sortu ziren”. Oztupoak izaten dira, urtetik urtera berritu behar baitute baimena. Lana beti motel doa, sosa beti urria baita. Halere, aurten ere, etorriko dira laguntzeko boluntarioak. Aurkikuntza dezente izan da orain arte.

Amaiur Gazteluan

Gazteluan gaude, Baztan harana gure begietan ageri: Arizkun herria parean dugu. Ezkerrera, mendien ostean, Bozate eta Errazu. Auza mendia lainopean dago, muga-mugan, Izpegitik Baigorriara doan bidea irudi: “1512an izan zen Nafarroako Konkista, baina Amaiurko Gazteluak 1522ra arte iraun zuen zutik, azken baluarte izan zen, erresistentziari emana” dioskute. Bi lagunek kontu kontari jarraitzen dute: “...azken gotorleku honetatik askok Lapurdi, Baxenabarre, Zubero eta Biarno aldera jo zuten, atzera eta aurrera ibili ziren hamar urte haietan. Elkartearen oraingo egitekoen artean, indusketaz batera, hamarkada haren berri ematea da”. Gorramendiri begiratu diogu

Amaiur 2012: Haien ametsa gurea da

HAIEN AMETSA GUREA DA ikuskizun musikala Amaiurko Gaztelu eta Mauleko Amis du Château fort elkar-teek antolatua da. Gaztelu Elkarteko Juan Mari Alemanek horrela azaldu digu ekimenaren nondik norakoa: “2000. urtean Pastoral bat egin nahi izan genuen Amaiurren, Nafarroako Konkista gaia harturik. Zuberotarrei proposatu genien, baina Pastoralaren dinamika dela-eta ezin zen gauzatu. Alabaina, beraiei esker abiatu genuen orain prestatzen ari garen ekitaldiaren asmoa. Historia kontatzeko beste modu bat da: kan-

tuz, musikaz, dantzaz, halere, gure historiaren bilakaera ere azalduko da”.

Ikuskizunak lau gertaldi dauzka. Lehena, Errege katoliko inperialistak. Bigarrena, Nafarroaren konkista dorpea. Hirugarrena, Amaiurko setioa. Eta azkena, Nafarroa betiko.

45.000 euroko aurrekontua du egitasmoak. 100 bat lagun ari dira lanean. Antolatzailerik 1.400-1.500 lagun espero dituzte Amaiurren uztailearen 20an, lehen emanaldian. Agorrileko 10ean eta 11n Maulen jokatu izanena da berriz ere.



berriz ere, iparramerikarrek armez hartu zuten tokia. Lainoepen dago hau ere.

Gazteluko aljibearen aurrean gaude, Monolitoaren ezkerrean. Harrinabarreko plakan 2022 urtea ageri da. Beste batean Monolito eraiki zuteneko urtea: 1922. Hegoaldeko lau diputazioen arteko akordioaz egin zuten Monolitoa, duela 90 urte. 1982an, berriz, Carlos Garaikoe-
txea izan zen bertan, EAEko lehendakari zela, eta geroago Juan Cruz Alli, Nafarroako Diputazioaren burua: “Alli, txapela eta guzti izan zen. Kristoren trifulka armatu zioten UPNkoek. Hartaz gero hasi zen bere galtzea”.

Jimenez Juríok *Amaiur*, *símbolo de Navarra* liburuan kontatzen duenez, 1922an, Lorenzo Oroz Urriza, navarrista, Diputazioko burua, Nafarroaz eta Euskal Herriaz mintzatu zen hemen. “Gaur egun Arnaldo Otegi mintzo den antzera” dioskute lagunek. “Bederatzi urte beranduago erauzi zuten monolitoa, errepublikar eta erreketen liskarrak tarteko”. Gero etorri ziren gerra eta frankismoa. Gerra Zibilaren ondoren sortu zen Gaztelu Elkar-
tea, monolitoa berreskuratzeko asmoz. 50 urtez deseginda egon zen, inguruko amildegi-
ko harriez berreraiki zuten. Amildegiari begira gaude. Gazteluak erretagoardia ondo babestua zeukan erasoetatik, alajaina. Gaztelu Elkar-
tearen logoan bost aldeko gaztelua ageri da, eta dorrea. Gazteluaren eitea agertu digu Alemanek: “Hor dorre altua zegokeen, zela-
tatzekoa. XI. mendean atakeko sistemak aldatu ziren eta lehenbiziko harresiak eraiki zituzten, gero eta behar gehiagoaren ondo-
ren, bigarren harresia ere bai, dorre altuago batekin. Artilleria asmatu ondoren, baluarteak egin zuten, kanoikadak agoantatzeko. Harrezkero baina, alturak ez zuten muntarik arkitektura militarrean”.

Ezkerrean, Juan Mari Aleman; Gaztelu Elkarteko burua. Eskuinean, Kike Otaegi, elkar-tearen eta ikuskizunaren laguntzaile donostiarra. Bien artean, Amaiur 2012 ekimenaren sustatzaile amaiurtarra.

Amaiur Espainiako gazteluen ibilbidean dago: “Aurten sartu dute. Bai, horixe. Baina Fiturren, Madrilen, Amaiur kendu zuten. Amaiur Gaztelua ez dago. Horrela erabiltzen dute informazioa. Hona heldu diren turistek geure eskutik jasotzen dute historia, historiari zenbaiten arabera. Noski, gure ustez, errealitate hobekien hurbiltzen dena. Halaber, eskolekin aritu nahi dugu, egungo gazteek guk ikasi ez dugun historia ikas dezaten”.

Ezkila: Amaiurko ezaugarria

Historiako istorioak berritzen heldu gara Gure Ametsa pilotalekura: Lapurtarren eta Baztan-
darren biltzarrak. Iraganean galdu zen admin-
istrazio politiko-juridikoa. Victor Hugok goraipatu zuen euskal demokrazia. Foruak eta lareak... Amaiurtarren etxekoan armarriko ezkila ere interpretatu dugu, Jimenez Juríoren laguntzaz betiere: “Amaiurtarrek ezkila jotzen zuten batzarrera deitzeko”. Biltzarrak, herriko plazan, elizan edo baselizan egiten zituzten. Amaiurko sinboloa da ezkila. Frontoiko frontisean margotutako armarrarian ere ezkila dago.

Pier Paul Berzaitz bildu da taldera, gurekin elestatzeko: “Ikuskizuna baikorra da. Abesti batean diodanez, jende anitz hil zen Gazteluan, ez bakarrik nafar, baina lapurtar, zuberotar, agian gaskoiak ere. Jende haiek bazuten ikusmolde bat, pentsu dut, eta ametsak ere bai, eta agian, gaur ahazten ditugu pixka bat...; ez guztiz, baina hainbat gauza ez da aipatzen naski, beste manera batez kontatzen da. Hala nola, Nafarroa askatu zutela frantsesengandik. Beharbada badago bertsio bat baino gehiago. Alabaina, hil zirenek errespetua behar dutela pentsu dut. Nik alderdi hori defendatzen dut”.

Horrela segitzen du zuberotarrak: “Ikuskizun hau egitea lan handia da, dirua behar da, krisian gaude, gu ttipiak gara... Hemengo pertsonen espirituari lotu naiz haatik. ‘Gure arbasoek eraiki zuten monolitoa bota zuten eta guk berriz eman dugu zutik. Agian, orain zuek behar duzue segida eman, zuen aldia da’ erran ziguten amaiurtarrek. Hitz horiek hun-
kitu ninduten”.

Berzaitz, Aleman eta Otaegi agurtu ditugu, hilaren 21era arte. Alta bada, historia hizpide amaitu dugu solasaldia. Horra azken biekin izandako hondar eleak: “Bistan da, ezin dugu egun duela 500 urte gertatu zena zehatz-
mehatz jakitera eman. Hau da, ezin dugu orduko bizimodua gaur egunera ekarri. Tira errege bat bazela? Bai, izan(go) zen. Baina, gaur ez dugu erregeren beharrik”.

“Gogo duenak ikasi eta ekiten du” zioen amaiurtarren lehen-
biziko lemak. Honatx azkenak: “Hobe erregerik ez eta erresuma gehiago”. ■



Itxaso Martin

«Emozioekiko dudan ikuspegia»

“Eromena eromenetik” kontatu nahi duen eleberria eskuetan duela heldu da euskal literaturara Itxaso Martin. Krisialdian murgilduta dagoen emakume gazte baten prozesua eta eroetxean bizi izan zen birramonaren istorioa uztartu ditu Ni, Vera (Elkar) izenburupean.

GARBINE UBEDA GOIKOETXEA

Zer da Martinari gertatzen zaion “hori”? Izenik ez zaio inon ematen.

Kontzienteki egindako zerbait da, ni ez naizelako etiketa zalea. Martina krisi batean murgilduta dago, eta azken batean, depresioak jota dagoela esatea edo eskizofrenia duela esatea, pertsona etiketatzea da, edo pasatzen ari den momentua etiketatzea. Horrekin kontuz ibiltzea gustatzen zait, Martinak asko baitu niretik. Momentu txarra pasatzen ari nintzelako hasi nintzen idazten, eta orduko hartan nire burua etiketatu nahi izan ez nuen bezala, Martina ez dut sailkatu nahi izan.

Sendatzekotan, ez al da garrantzitsua zeri aurre egin behar zaion jakitea?

Nire ustez, senda daiteke etiketarik gabe. Buruko gaixotasunetan, gaixo-tasun hitza erabil badaiteke behintzat, klasifikatu egiten da. Momentu jakin batean antsietatea senti dezakegu, eta antsietatearen baitan ere sentsazio ezberdin ugari dago, depresioari dagozkion hainbat ezaugarri ere eduki daitezke. Haluzinazioak daudenean eskizofrenia dela aipatzen da, baina zer gertatzen da bat-batean sintometan agertzen ez den zerbait sentitzen baduzu? Gainera, halako zera duzula esaten dizutenean, zeu ere jarrera horretan sartzen zara.

Izendatu nahi ez izateak ez al gaitu tabua handitzera eramaten? Eroa deitzea hobe da?

Izena jartzeak kontrolari dagokionez laguntzen digu. Alegia, arazoa zer den jakin dezakegu gutxi gorabehera, baina beti kontroletik. Ez zaigu gustatzen “krisi batean nago eta ez dakit zer gertatzen zaidan” esatea.

Martinarenak krisia baino latzagoa dirudi, “eromena eromenetik kontatua”, zure hitzetan. Ez dakit zer puntutaraino den gogorragoa.

Niri ere gertatu zaidan zerbaitez ari naiz. Aurreko batean, irakurle talde batean nintzela, bertako batek esan zidan momentu txar bat pasatua zuela hark ere, eta askotan identifikatuta sentitu zela. Beharbada suizidio edota haluzinazio kontu horiek direla-eta, Martinak muga pasatu duela iruditzen ahal zaigu, ez dela krisi hutsa. Sekula aipatzen ez diren arren, gure inguruan jende askok ditu horrelako burutapenak, baina onartzea oso zaila da. Sentsazio horiek gorde egiten ditugu.

Nik ez nion izenik jarri nahi, sailkatzea dela iruditzen zaidalako, eta emozioekiko daukadan ikuspegia klasifikazio eta etiketa horietatik oso urrun dago.

Idaztea terapia da Martina-arentzat. Zuloaren ertzean dagoenean, lagundu egiten dio ez erortzen. Zergatik da

hain mesedegarri?

Horrelako burutazioak dituzu-nean oso zaila da ingurukoekin hitz egitea. Idazten duzuna ez doa inora, badirudi elkarrizketa bat duzula, askotan zeure buruarekin, gainera gauzak onartzen laguntzen dizu. Idatzi duzun hori zakarretara bota dezakezu, bestalde. Idaztea, komuni-katzeko da lagungarri, zuloan murgildu zarenean ateratzeko, barrua husteko.

Trantsiziorik ez da kontaktzen. Halako batean zuloan dago, eta handik gutxira ondo. Nola lortzen du aldaketa?

Horrelako krisietan, segundo batetik bestera egon zaitezke goian edo behean. Momentu batzuetan indartsu zaude eta aurre egin nahi diozu, eta beste batzuetan ez zara gai. Ez dut uste Martina ondo dagoenik. Hainbat gauza onartu egiten ditu eta niretzat onarpen hori da sendabidearen lehen pausoa. Hori

“Momentu txarrari izena jartzeak kontrolari dagokionez laguntzen digu. Arazoa zein den jakin dezakegu gutxi gorabehera, baina beti kontroletik”

etiketatatik oso urrun dago»



Mixeria asko aipatzen dituzu, baina ziprztinka, sakondu gabe: suizidioa, tratu txarrak, ospitaletako terapia bortitzak... Beste baterako utzi dituzu?

Orain tesia egiten ari naiz, emakumea eta psikiatria, nik esango nuke horri dagozkiola gehiago. Liburuan Martinaren eta Veraren barruan sartu nahi nuen, eta haien begiez ikusi. Suizidioari edo beste gairen bati heldu izan banio, kanpoko begirada izango zatekeen.

Terapia bortitzei dagokienez, adibide bat jartzearren, ez nuen garai bateko psikiatrikoetako funtzionamenduaz hitz egin nahi, Veraren begietatik ikusi nahi nuen. Eta uste dut bertan ziren gaixoak ere ez zirela kontziente askotan aplikatzen zitzaizen terapiak. Terapia horiek gaurko ikuspegitik begiratuta dira bortitzak. Banekien gaiari helduta epaian sartuko nintzela.

G. U. G.

barneratu duenean, epairik ez egiteko erabakia hartzen du.

Psikologoarengana jotzea azken aukera da sarritan. Martinak ere ez du joan nahi.

Buruko gaixotasun gisa ezagutzen ditugun horiek beldur handia sortzen dute oraindik, handia da estigma. Gaixotasun arruntetan ere, gaixoa diagnostikoaren beldur izan ohi da. Eta psikologoarena joan behar duzula esatea ez da ondo ikusia.

Nik berriz, gero eta normaltasun handiagoa sumatzen dut nire inguruan. Terapia kontuak gero eta sarriago entzuten ditut.

Bai, egia da. Terapia modu ugari dagoelako, neurri handi batean. Esate baterako, Gesthalt deiturikoa. Baina beldurra handia da oraindik ere, bereziki arrazoi objektiborik ez dagoenean, itxura batean dena ondo doanean. Normalizatzen ari da apurka, eta modan ere jarri da beharbada, mota bateko jendearen artean, azken finean oso garestia baita. Osakidetzara joanez gero, berehala psikiatragana bidaltzen zaituzte, eta segidan pastillak datoz.

“Idazten hasi nintzenean distantzia hartu behar izan nuen niri gertatzen ari zitzaidanarekiko. Mamuak lasaitutakoan hasi nintzen idatzitakoan eleberri gisa itxuratzen. Idazkera aurkitzea ere kostatu zitzaidan, hasieran egitura eta idazkera oso argiak ziren, argitasunetik hitz egiten zen eromenaz”.

Bi istorio batzen dira hemen, bata bestearen koartada diren bi istorio.

Zenbaitzuri bi zati ezberdin direla iruditu zaie garbi. Martinaren partea bigarren pertsonan dago idatzita. Niretzat, bigarren ahots hori birramona da, eromen prozesua bizi ondoren, eromen prozesuan sartzen ari dela uste duen pertsona bati ari zaio hizketan. Hori da bi istorioen arteko lotura. Koartada izan daiteke, baina errealitatea hori izan da. Errealitateari gerturatzea ahalik eta gehiena, hori izan da azken erabakia, zenbait bertsio eta idazmolde probatu ostean.

Nola ikusten duzu euskal literatura?

Iritsi berria naiz, ez dakit kontziente naizen ere, zaila da horri erantzutea. Sormen aldetik momentu oparoan dela iruditzen zait, baina ez da toki guztietara heltzen. Euskaldun jendeak ere galdetu izan dit nolatan idatzi ote dudan euskaraz, eta horrek atentzioa eman dit.

Idaztea beti gustatu izan zait, behar bat delako niretzat. Bide honetatik jarraitzea gustatuko litzaidake, baina ez dakit honek adinako indarra duen istoriorik aurkituko ote dudan. ■





Eraso politikoa zinemari

Ezkerreko argazkian, ezker-eskuin:

Eneko Olasagasti, Txaber Larreategi, Josu Martinez, Mireia Gabilondo eta Enara Goikoetxea, *Barrura begiratzeko leihoak* lanaren egileak. Historia banaren bidez, "euskal preso politikoen inguruko unibertsoa" islatu nahi dute, "modu irekian eta gizatasunez". Horra bekatua. Ondoko bi fotogrametan, *Burgosko prozesua* eta *Euskal pilota*.

ESTREINATU AURRETIK, inork ikusi aurretik, *Barrura begiratzeko leihoak* kriminalizatu nahi dute, presoei ahotsa ematea argudio. Donostiako Udala salatu nahi izan zuen Espainiako Barne Ministerioak (zehazki Bildu legez kanpo utzi nahi izan zuen), proiektuari diru-laguntza emategatik. Azken adibidea baino ez da. Euskal gatazkarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten pelikulek polemika eta iritzi kontrajarriak piztea zilegi da, baina ez da bidezkoa boikot, zentsura eta jazarpen politiko arrazoigabea sustatzea, interes alderdikoekin. Historiak erakutsi digu Espainiako eskuina dela kanpaina bortitzak bideratu ohi dituen. Eraiki beharreko errelatoa hain bogan dagoen garaiotan, badirudi alde bakarreko kontakizuna baino ez dutela onartzen batzuek.

Ama Lur pelikula 1968an estreinatu zuten Fernando Larruquertek eta Nestor Basterretxeak. Diktadura betean, zentsurak jan zituen Gernikako arbola elurtua edota Picassoren *Guernica* koadroa, eta "Espainia" hitza sartu behar izan zuten *off* ahotsaren hainbat pasartetan, besteak beste.

Imanol Uribek behin baino gehiagotan jorratu du euskal gatazka pantaila handian. Oztopo gehien *Burgosko prozesua* (1979) dokumentalarekin aurkitu zuen. Donostiako Zinemaldian estreinatu baino egun bat lehenago, Jaime Mayor Oreja bildu zen Uriberekin. "Zenbat kostako litzateke Zinemalditik pelikula erretiratzea?", galdetu zion. Azkenean ez zen halakorik gertatu, baina polizia beteta egin zen emanaldia.

Marrakzi bizidunak ere izan daitezke polemika iturri. Juanba Berasategik zuzenduriko *Lazkao Txiki* (1998-1999) bertsolariari buruzko telesaila Eusko

Legebiltzarrean proiektatu zuten. Arrazoiak, marrakziak kentzeko PSOEek eta PPk aurkeztutako mozioa, telesailak Espainiako sinboloak, armada eta Guardia Zibila barregarri uzten zituela argudiatuta.

Helena Tabernak ETako lehenengo buruzagi emakumezkoaren bitzta jaso zuen *Yoyes* lanean (2000). "Jendeak ezagutzen ez ninduen eta gai konplexua zenez, susmoak eragin nituen. Aktore batzuek ez zuten parte hartu nahi izan, hainbat tekninarik ere ez... eta oztopoak jarri zizkidaten, ekoizleari esanez 'kontuz non sartzen zaren, ikusiko duzu...' eta halakoak".

Hiru urte geroago, sonatuak izan ziren Julio Medemen *Euskal pilota. Larrua harriaren kontra* dokumentalak harrotutako hautsak. "Gertuko norbaitek esan beharko lieke AVTko kideei ETako biktima izateak ez diela arrazoi politiko edo ideologiko handiagorik ematen", adierazi zuen zuzendariak. Kanpaina bortitz baten barruan, pelikula Donostiako Zinemalditik kentzeko eskatu zuen María San Gil Donostiako orduko PPko bozeramaileak, baita Espainiako Gobernuak ere.

Gaia jorrazteko moduak eraginda kritika gogorrak –eta ez alde bakarrekoak– sufritu dituzten pelikulak gehiago dira, noski (Uribe beraren *Segoviako ihesa* edo *Mikelen beriotza* kasu, Koldo Izagirreraren *Off-eko maitasuna*, Ana Diezen *Ander eta Yul*, Jaime Rosalesen *Tiro bat buruan...*), baina azkenean denek lortu dute politikakeriari gain hartu eta euren balio zinematografikoa erakustea. Hala izan dadila *Barrura begiratzeko leihoak* proiektuarekin ere.



Mikel Garcia Idiakex



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitezarra, 1
Zumartegi industrialdea
☎ 943 37 11 50
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
www.atxegajauregia.com



Liburuak

KRITIKA

Merezi du hainbeste

Helduen literatura

Aritz Galarraga

ANTZERKIGILE gisara da batez ere ezagutua. Hala nahi luke gainera izatea gogoratua: “Bat oroitzen da, “gizon hori omen idatzi zuen antzerki bat denboran”, eta beste batek “ah, bai?”, eta hor uzten dute dena. Hori gustatzen zait niri”. Baina antzerkizale mengel honen begietara, 2009an egin zen Antton Luku osoki ezagun, *Euskal kultura?* deitu saioa argitaratzearen karietara. Txorrotxa duzu: “Iparraldeko euskal kulturaren erasopeko egoera eta gaia –ezagutza, inplikazio eta engaiamendu handiz– aztertuz, salatuz eta kitzikatuz, ordezkapen eta suntsipen joera eta ondoko arazo larriak ausart eta eraginkor maneran jorratzen dituelako”, horrexegatik eman zioten 2008ko Juan Zelaia saiakera saria. Gehituko diot hemendik euskal kulturaz ardura duen orok eman beharko liokeela irakurraldia.

Murmurioa bazebilen, ordea, bazuela Lukuk ipuin bilduma on aski askoa, 98koa, *Botoiletan* izenekoa. Harik eta bilduma aurkitu, eskuratu eta irakurri arteko bakerik ez dut izan, bai haatik murmurioaren pilota handiago egiteko denbora. Kito, bukatu dira desesperak. Irakurketaren emaitza: ez dio inondik inora murmurioari egiten


iruzurra. Kontrara, bilduma oroz gain da irakurri eta kontuan hartzekoa. Biltzen ditu hainbat ipuin, dozena inguru, hamaika sarrera testua ipuintzat hartzen ez badugu. Guztiek ere atmosfera bat konpartitzen dute, Errobi gainaldeko memoria, sustut Garazi-Baigorri Baigorri-Garazi ardatza kurrituko dugula. Pisu handia hartzen dute pertsonaiek, girstinoek, errugbi jokalariek, turista landesek, xinaurri jaleek, zakurrek, arraintzariak, ihizi zaleek, etxalde itzaltsuetako auzoek, orobat behar den bezalako jendeak. Izan ere, ipuinok daude idatziak behar den bezalakoa zer den esplikatzearren beharrik ez dutenentzat.

Bada mundu baten aurkeztea, ez hainbeste jujatzea, egin dezagun geure irakurketa propiala. Begien aurretik pasarazten dizkigu itxura batean ezdeusak diren kontuak, pasarte ustez inokuak, baina momenturen batean punturen batean kraska egiten dutenak. Besteren gaintetik, tentsioa baita leku jende istoriook bizi dutena, azaleko bake moduko baten pean borborra da hemen lehertzen dena. Ipuinok badute beltzetik, exijenteak dira hizkera aldetik, askeak estilo aldetik, oroz gain nabarmentzekoak literatura aldetik.

Segida ez dute izan, edo urria, *Euskal kama sutra* hartan ere parte hartu baitzuen Lukuk beste ilustre batzuekin batera. Antzerkigile gisara gogoratuko dugu, hartara, nahiz baita ere, eta ipuin bilduma bakarra kaleratzen badu ere, ipuingile destakatu modura. *Botoiletan* honek merezi du hainbeste.



Botoiletan.
Antton Luku.
Maiatz, 1998.



Diskoak

IKER BARANDIARAN



**Pleistozenoko
astelehenak.**
Jupiter Jon.
Bidehuts.
Iraupena: 42'.

Barrenekoarekin jolastu

EZ NUEN GABON CALIGULA entzuteko aukerarik izan, baina haren errautsetatik dator taldea. Taldekide gehienek ibilbide luzea izan dute talde bereizgarrietan, hala nola, Akauzazte, Bukaera, Lisabö, Mau Mau, Mar de Cristal eta Dollmen, besteak beste.

Oraingoan primitiboenetik, primarioenetik abiatzen dira kultura zaharrenen erraietatik datorren erritmika tau-pada dutela post apendizak izan ditzakeen bideetatik aske abiatzeko,

melodien *dekonstrukzioak* eginez, ahots ilunez erreztatuz, distortsioa erabiliz eta hitz batean musikarekin jolastuz. Post-hardcorearen irmotasunetik urrun daude, giroak ere ez dira itogarriak eta iluntasuna tamainan dago. Zerrenda luzeagoa bada ere, freskotasun eta iluntasun arteko jokoak The Ex, Antietam, King Loser eta AEBetako no-wave taldeak ekarri dizkirate gogora.

www.myspace.com/jonjupiterjon

Aida eta Baxi, Jupiter Jon

«Egin dizkiguten kritikak onak dira baina ez dugu piperrik saltzen»

Kantu gehienak ia instrumentalak dira eta ahotsa beste instrumentu bat... Hitzei garrantzia txikia ematen diezue?

Baxi. Hitzek garrantzia dute, baina abestiaren giroa sortu eta gero iristen dira. Abesti bakoitzak bere gaia du eta izenburuetan ideia nagusia laburtzen dugu.

Nolakoak dira zuen entseguak?

Aida. Beti ez gaude laurok elkarrekin, hori da errealtatea. Gehienetan inprobisazioetatik abiatzen gara; adibidez *Mazedianian* abestia gitarra batetik sortu zen eta *Jonfelix boeing* erritmo batetik.

Tribala da zuen kantuak entzuterakotan etortzen zaidan lehenengo irudia. Hala da Jupiter Jon, barru-barrukoa, pulitu gabekoa?

B. Entsaioetan ludikotasunak lekua hartzen duenean, Aidaren erritmoak bidea irekitzen hasten dira Himalayako xerpak bezala, atzetik goaz besteok oinarri horren gainetik jolasteko. Barru-barrukoa da bai,



hasieran pulitu gabea baina gero denon artean landutakoa.

Nor da Jupiter Jon?

B. Lunatiko xamarra izan daitekeen edonor.

Hain urrun ikusten dituzue astelehenak?

B. *Pleistozenoko astelehenak* diskoaren izenburua jolas bat da, gizakiak natura bereganatzeko joerarekin du zerikusia.

Ohiko melodia eta erritmo egiturekin apurtzen duzue. Eraikitzekeo deseraikitzekeo hasi behar?

B. Hala bada, nahi gabe izan da. Musika intuizioz egiten dugu, ez dugu helburu finkorik.

400 edo 500 gau kantu pop-rockeroena da eta ederra aldi berean. Ez da, bada, kontzesio bat izango?

B. Diskoko kanta ezberdinena *Lady Chatterly* dela uste dut, doinuarengatik, seguru aski. Baina ez da kontzesio bat, horrela atera zitzaigun.

Jupiter Jonen *danborra bihotzarena* ibilbide zirkularrak egiten dituen in crescendo zaldi trostarekin parekatu daiteke?

B. Bai adibidez, edo bihotzak danborra astintzearekin ere...

Zer harrera izaten ari da diskoak?

A. Egin dizkiguten kritikak onak dira baina ez dugu piperrik saltzen. ■



Ezpalak

JON TORNER



ELISA BORREANI

Afrikar kulturak tarte berezia izango du Errobiko Festibalean

UZTAILAREN 19TIK 22RA bitartean egingo da Itsasun (Lapurdi) Errobiko Festibala. Euskal Herriko, Britainiako eta bereziki Afrikako artisten parte hartzea nabarmendu dute antolatzaileek. Aurreneko egunean adibidez Chrysogone Diangouaya Kongoko dantzaria (argazkian) izango da Itsasun, eta hilaren 20an Etenes Wassie abeslari etiopiarra. Egun berean Erwan eta Gwenolé Keravec anaia britainiarrak arituko dira, besteak beste. Musika, dantza, artea, literatura eta kirola uztartuko dituen jaialdian hainbat mahai-inguru egingo dira, tartean *Pastorala, sorkuntza artistikoaren bide berriak denentzako sormen-espazio bilaka litezke?* galdera izenburutzat duena. Egitarau osoa eta parte hartzailei buruzko informazioa www.errobikofestibala.fr webgunean duzue eskuragai.

Eako Poesia Egunak uztailaren 13tik 15era bitartean egingo dira aurrean, *Poesia butsa edo azukreagaz?* lelopean. Xabier Amurizaren *Arestiren koplak aboan* izeneko hitzaldi eta errezitaldia, Edorta Jimenezen *Mikel Lasa gure artean* solasaldi musikatua, Mikel Elortzaren *Lp bat poema* hitzaldia, Norte Apache eta Ruper Ordorikaren kontzertuak, Iñigo Aranbarraren testu bat oinarri duen *Munduan beste* antzezlan eta, nola ez, hainbat poetaren errezitaldiak izango dira Ean (Bizkaia) hiru egunez. Besteak beste, Yolanda Castaño galiziarra, Iñigo Astiz, Ione Gorostazu, Kattalin Miner eta Angel Erro idazleek parte hartuko dute Poesia Egunetan. Herrijeri Emon Arnasa kultur elkar-teak antolatu ohi du egitasmo hau. Egitarau osoa: eakopoesiaegunak.com.

Trikisound, Izer eta Alabier, Erreterria Musikaleko trikitilariak, Alkarkide Txaranga, Erreterriako Gaiteroak, Juan Mari Beltran eta Astiasaran Anaiak, Oarsoaldeko txistulariak, Txorimaloak taldea eta Zubietako joaldunak bildu ditu uztailaren 14an Erreterrian (Gipuzkoa) egingo den Erromeria Eguneko egitarauak.

Miguel Unamuno idazleak (Bilbo, 1864-Salamanca, Espainia, 1936) egindako 50 marrazki baino gehiago izango dira ikusgai irailaren 4ra arte Bilbon, Bizkaiko Foru Aldundiko liburutegiko areto nagusian. Unamunoren heriotzaren 75. urteurrenaren harira prestatu dute erakusketa.

• Hilaren hasieran Bilbon egindako *Euskadi, sormenezko programazioa?* mahai-inguruan parte hartu zuten lagunak hitzak jaso ditu Berriak.

Igor Otxoa (Donostia 2016ko programazioaren arduraduna): «Orain arte, herri honetan, programazioa erakustera eta ekoizpena bideratu izan da, sorkuntzara, berriz, ez horrenbeste eta, oso gutxi landu da publikoen sormena. Ez da publikorik lortzen saiatu. (...) Sormena laguntzeko laguntzarik ez egotearekin batera, batzuetan horren kontra egin dute erakundeek; hemen Bilbon, Kukutzaren adibidea dago. Herri honetan egon diren sormen fabrika gutxien artean, gaztetxeak horren parte garrantzitsua izan dira».

Laura Etxebarria (Bilboko La Fundicion aretoko zuzendaria): «Azpiegitura txiki eta independenteok besteekin elkarlanean aritzea behar dugu. Espazioen aniztasunak programazioaren aukerak zabaltzen ditu, konpainiek dituzten beharretara moldatzeko aukera

zabalagoa ematen baitu. (...) Datozenek aztarna utz dezaten bultzatu beharra dago, profesionalen arteko elkarriketa eta elkar eragina gauzatzeko aukera eman behar da. Eta horrekin batera, bertoko konpainien lana kanpoan ikusarazi behar da».



NOEMÍ ELÍAS BASCUNANA



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@ DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

JON TORNER

TMEO, 25 urtez aurpegira txiza eginez

TMEOk 25 urte (117. zenbakia, 2012ko ekaina).
20 x 28 zentimetro. 100 orrialde, koloretan. 5 euro
Ezten Kultur Taldea (Gasteiz).

TMEO komiki aldizkariaren 0. zenbakiko azalean zezena eta toreatzailea ageri ziren. Toretzailea zen odolusten ari zena, eta zezena haren belarria eskuan zuena. Mariano Rajoy Espainiako presidentea, polizia bat, atso aberats bat, *miss sinpatia*, Benedicto XVI. Aita Santua eta Espainiako Erregea daude 25. urteurreneko zenbaki bereziko azalean, haiei begira dagoen zakil puntaren pixak zipriztinduta. Atzerago ikus ditzakegu gimnasioa, udaletxea, polizia-etxea, eliza eta bankua. TMEOk berezkoak dituen ezaugarriak biltzen dituzte azalok: ironia korrosiboa, estamentu politiko-erlijioso-ekonomiko batzuekiko kritika zorrotza, barre-argara ugari eta ostia txar apur bat, hori dena ukitu eskatologiko eta speed marra batzuekin nahasturik.

“Urte hauetan guztietan ehunka kolaboratzaile pasa dira TMEOtik. Batzuk bidean hil ziren, eta beste batzuek doan lan egiteaz nazkatu edo pitokeria baten-gatik haserretu zirelako laga zuten. Baina berriak etorri dira, bi hilabetez behin beharrezko txorakeria, gustu txarreko txiste eta errespetu falta dosia eskaintzeko”, dio editorialak. Horretan saiatu dira 100 orrialdeko zenbaki berezian bat egin duten egile gazte eta beterranoek. Han daude, adibidez, Roger, Santi Orue, Mauro Entrialgo, Pedro Vera, Ata, Gol, Piñata, Exkoriak eta Abarrots, ohiko dosietan, gehienez bi orrialde hartzen dituzten kapsuletan.

Dena ez da, baina, tripi kolorekoa. Euskararen presentzia erabat anekdotikoa da aldizkarian, eta txis-



TMEO fantzineak Iruñean hasi zuen bere ibilbidea, eta 5 urte bete zituen eraman zuten Gasteizera. 25. urteurreneko azal umel hau Furillok egin du, TMEOk kolaboratzailek zerrienaren titulua irabazteko Piñatarekin lehian ari den marrazkilariak.

teetako erreferentziak espainolak dira maiz. 25. urteurreneko azala eta kontrazala ditugu horren lekuko. Rajoy, Zapatero, Felipe Gonzalez, Aznar eta TMEOn protagonismo handia izan ohi duen –ongi merezita, hori bai– Borbon erregea ageri dira. Egia da horiek direla, gustatu ala ez, irakurleon erreferentziak, baina hurbileko –fisikoki behintzat– gai zein pertsonaia gehiago txertatzeak mesede egingo liokeela uste dut. Halakoak sartzean, gainera, bete-betean asmatu ohi dute tmeolariak. Juan Jose Ibarretxe, Arnaldo Otegi, Patxi Lopez, Athletic futbol taldeko jokalariek, etakideak, ertzainak... azal mitikoen protagonistak izan dira guztiak. Azal horiek Megaupload-en zeuden ikusgai duela gutxi arte, baina www.tmeo.org webgunetik hara sartzen saiatzean FBIren oharrarekin egingo dugu orain topo. Ea beste nonbait sarerartzen dituzten, bai orain artekoak, bai datozen 100 zenbakienak ere.



Pantaila Globala erakusketa, San Telmo Museoa irailaren 30era arte

Pantailaren botereak egunerokotasunaren esparru guztietan daude: zinema, telebista, ordenagailuak, telefono adimendunak, tabletak, zaintza pantailak... Eta gure bizitzatan geratzeko etorri dira.

San Telmo Museoa Zuloaga plaza, 1. Donostia www.santelmomuseoa.com

AMAIUR 2012

HAIEN AMETSA GUREA DA

Amaiur

Uztaila 20 eta 21

Maule

Agorrila 10 eta 11

Ikuskizun Artistiko-Musikala
Pier-Pol Berzaitz

Antolazaileak:
GAZTELU ELKARTEA
AMIS DU CHÂTEAU FORT

SARRERAK SALGAI:
www.ticketmaster.es

1892
DE ORRABA ABAD DE URDAN
DE VELAZ DE MEDRANO
DE DEL CASTILLO DE MAYA
DE JASSO SEÑOR DE XAVIER
DE VELAZ DE MEDRANO
DE JASSO VICTOR DE MAULON
DE AGUERRE DE TCHALAR
1922

Babesleak:

AMAIURKO
HERRIA



12



argia

gara

berria

Noticias
Eres lo que lees

Kompany Berzaitz

Zientzia eta teknologia


JOXERRA AIZPURUA

E-book irakurgailu malgua jadanik kalean

WEXLER ENPRESAK lehen irakurgailu malgua komertzializatu du, oraingoz Errusian. Egia da ezin dela egunkarien antzera lauzpabost tolesturatan bildu, baina ildo horretan lehen urratsa izan da. Flex One izeneko irakurgailuaren pantaila LG enpresa korearrak ekoiztu du.

Irakurgailuaren bereizmena 1024 x 768 pixelekoa da eta 15,1 zentimetroko altuera, 13,4 zentimetroko luzera eta lau milimetroko zabalera ditu. Bateriak bi asteko autonomia du eta, iPad motako tabletetan ez bezala, tinta elektronikoz baliatzen da hizkiak erakusteko; beste hitz batzuetan esanda, tinta karga elektrikoek sortzen dute. Karga horiek erakartzen direnean pantailaren lehen mailara ekarri eta ikusgai gertatzen dira, eta beste batzuetan kargak urrutiratu, pantailaren azken ilarara bidali eta ikusezin bilakatzeko bidaltzen dira.

Flex One-n tolestura gaitasuna ez dela handia aipatu dugu arestian, baina nahikoa da kolpeei beste edozein irakurgailu baino erresistentzia hobea izateko.




THE-DIGITAL-READER.COM



Algen garrantzia karbono metaketan

NAZIOARTEKO ikerketa talde batek argitaratu eman ditu itsas algek karbono metatzeko daukaten gaitasunari buruzko lan baten emaitzak. Ikerlari horien arabera, algek kilometro koadroko 83.000 tona karbono pilatzen dute itsas hondoran. Lehorreko ohiko baso batek kilometro koadroko 30.000 tona finkatzen du, gehiena zuhaitzen enborrean metatua; algek, berriz, zoruan finkatzen dute karbonoak.

Algek itsas hondorearen %0,2 baino ez dute okupatzen, baina uste denez, itsasoak metatzen duen karbonoaren %10 beraie esker pilatzen da. Ikerlarien arabera, algek sustraietan eta inguruko lurretan finkatzen dute karbonoak; gainera, milaka urtetan aritzen omen dira lan horretan.



PULSOVERDE.NRDC.ORG



Grafenozko eguzki-xafalak

Eguzki-energia elektrizitate bilakatzeko bidean efizientzia da errentagarritasunaren neurgailu garrantzitsuenetakoa. Jakina da eguzkitik datorren energiaren zati txiki bat baino ez dutela xaflek eskuratzen. Grafenoarena da efizientzia hobetzeko azken urteetan hasitako bidea.

ttiki.com/40459 (Gaztelaniaz)

Elektroiak atomotik ihes egiten duen unea grabatu dute

Ikerlari talde batek elektroien ihes egiten duen unea grabatu du. Ihesaldi hori, aurkakoa uste bazen ere, ez da bat-batekoa izan; aitzitik, astiro-astiro gertatu da. Ikerlariak atomoa ioi bilakatzen ikusi dute, baita elektroia aske gertatu deneko unea ere.

ttiki.com/40460 (Gaztelaniaz)

Segundoaren izaera eztabaidagai

Ekainaren 30eko azken minutuak 61 segundo izan zituen zientzialari askoren ustez. Munduan dauden 450 erloju atomikoetan baino ez da gehitu segundo hori, eta arrazoia ordularien higiduraren eta Lurraren errotazio-abiaduraren arteko desfasea da; baina zientzialari guztiak ez datoz bat.

ttiki.com/40461 (Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Usainen memoria

AITZURRA dantzatzeari utzi eta neroni dantzatzeraz jaitsi naiz jaietara. Eta giroak bero direnetan usainak are eta nabarmenago. Aspaldi ikusi gabe eta hurbiltzen zaizunarena eta, zer esanik ez, dantzarako heltzen dizun horrena... Beroak usainak ere harrotu egiten ditu.

Landare usainzaleak urteko luzeenak diren egun hauetan du bere aintza beteko une gorenak. Geranio eta zaingorri basak, ezkaikak, mendak, erromeroak... puri-purian daude, gailurrean. Arrats beroetan nabarmena da: egun-argia paltaltzean sudurrarekin ikusten da.

Edertasuna handitasunarekin nahasten duen kultura batekoak izaki, aspaldi galduak ditugu gure amonen amonen sudurrek ikusitako makina bat landare. Gure herrian sekula izan den txerri-hiltzaile ezagunak, Gazatañagako Demetrio "Zerri" zenak, ahoan tabakoa ibiltzen omen zuen. Mingaina loak har ez zezan, seguru asko. Baina belarri gainean beti kraelina. Belarritik sudurrerako zubi, kraelina (*Dianthus caryophyllus*). Beti. Etengabe lurrinetan.



Viola reichenbachiana, bioleten espeziekoa.

Edertasunaren tamaina alde batera utzi eta sudur haienak bizitzeko asmotan, gero eta atari eta lore baratze gehiagotan ari naiz usaina ardatz nagusi duten lore-joko eta bilduma bereziak sumatzen. Zaingorri baskak, *Geranium* eta *Pelargonium* generoetakoak, eta mendek, *Mentha*-tarrek, bolada alde dute. Bolada gorabehera bizi beharra ere ez da samurra izango.

Lurrinak ere holaxe ibiltzen dira, boladen arabera. Haize-boladak errenditzen ditu jendearen lepo aldeetako lurrinak sudurretara. Baina lepoan izateko boladan behar. Boladaka zaharra berritu egiten da. Etsita, ahaztu ezinaren ezinez memoriaren sekula betiko zokora baztertuak nituen usainetako lurrinak berritu zaizkit dantzan. Aspaldiko partez, bioletarena (*Viola* sp.) edota patxuliarena (*Pogostemon cablin*) bezalako usain bortitzen laino trinkoetan ibiltzea tokatu zait. Berrituta, besteak halako bi gaztetuta zebiltzan gure edadeko neskek eta mutilak: haien boladako lurrinak boladara ekarriz eta dantzan.



Udako hazia

Barazki gutxi batzuk besterik ez dira udaberrian loratzen. Gehienek uda beroa nahiago dute. Udazkenean hazi eta neguan eta udaberrian, bere onenean, otorduak ederki gozatu dizkigutenak badira. Zer arraio egingo genuke tipula (*Allium cepa*), porrua (*Allium porrum*) eta baratxuria (*Allium sativum*) gabe? Onenean izatetik onenak ematera: udaberriaren amaian tontortu, garatu eta gararen muturrean egundoko loretzarra ireki. Lore horietatik etorriko dira hurrengo sasoirako haziak. Hiruren loreak bikainak, politikak, galantak dira. Baratzeetan bezala ikusgarri daude lorategietan. Argazkikoa baratxuria da. Ahorako bezainbat gustatzen zait begirako. Zuri?



Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Animaliek epaitutako animaliak



Ezkerrean, txerri baten kontrako epaiketa, Alemanian. Eskuinean, Falaiseko txerri emea urkamendian, gizakien arropak jantzita.

FALAISE (FRANTZIA), 1386. Txerri eme bat epaitu zuten haur baten hilketa leporatuta. Guiot de Monfort udal idazkariak xehetasun osoz jaso zituen auziaren nondik norakoak. Txerriak haurrari aurpegia eta besoak jan omen zizkion. Hilketaren berri izan zuenean, Pere Lavengin bizkondeak animalia epaitzeko agindua eman zuen, eta heriotzara kondenatu zuten. Giza arropaz jantzita eraman zuten urkamendira, eta han borrerokak muturra eta eskuak moztu zizkion, hiltzaileak biktimari egindakoaren ordainetan. Ondoren, atzeko laurdenetik zintzilikatu zuten, eta berehala hil zen, odolustuta. Inguruko abeltzainei txerri guztiak plazara eramateko agindu zitzairen, kondanatuaren generokideek zigorra eskarmentutzat har zezaten. Exekuzioa burututa, jendailak kondenatuaren gorpua zatikatu zuen, eta txerri erreki bazkaria prestatu.

Azken datu hori bitxia da, kondenatutako animaliak jatea ez baitzen ohikoa. Animaliak epaitzea, ordea, zentzuak agintzen duena baino ohikoagoa zen. 1161ean, Parisen beste txerri bat exekutatu zuten, erregezko hilketa leporatuta. Louis VI.aren seme Filipe printzeak zaldi istripua izan zuen, txerri baten erruz, nonbait. Eta txerria tripak aterata hil

zuten jendaurrean. 1572an, Toledon, haur bat jan zuen txerria exekutatu zuten; baina, horrez gain, sakrilegioa ere leporatu zioten haur gaixoaren haragi samurra ostiral santuan jateagatik.

Txerriak ez ziren izan epaitegiak zapaldu zituzten ugaztun (ez-gizaki) bakarrak. Jabeak hil arte adarkatutako idiak, ostiko egin zale ziren zaldiak, amorrudun txakurrak... urkatu, zatikatu edo burugabetu zituzten gizakiei kalteak eragiteagatik. Epaike-ta horietan, animaliek ez zuten aukerarik beren burua defendatzeko, eta errugabetzat jotzeko aukerak oso txikiak ziren. Hala ere, salbuespenak izan ziren: 1379an, Belgikako Saint-Marcel-le-Jeussey herrian, txakur saldo batek haur bat hil zuen, eta animaliak hiltzera kondenatu zituzten; baina Hubert de Poitiers apaizak soldoko txakur kumeentzat errukia eskatu zuen eta, azkenean, epaileek animalia gazteenei zigorra barkatzea erabaki zuten.

Baina salbuespenak salbuespen, eta Jean Racine idazleak (1639-1699) ederki esan zuenez, “animalien aurkako epaiketetan, benetak basapiztiak ez daude akusatuen aulkian eserita, akusatzaileen aulkian baizik”.



Arrastoak

Condor Legioaren omenezko plaka bat kendu dute Madrilen

ALMUDENA hilerriko (Madril) hainbat oroigarri nazi eta frankista kentzeko eskatu zuen Madrilgo Alderdi Sozialistak 2010ean. Madrilgo Udalak (PP) “hildakoei bakean utzi behar” zaiela erantzun zuen orduan, eta Alderdi Sozialistaren jarrera “totalitarioa” zela eta “Espainiaren zatiketa areagotzen” zuela salatu zuen. Jakina, sinboloek hilerrian jarraitu zuten. Baina berriki Alemaniako Gobernuak izan da udalari eskaera luzatu diona eta, oraingoan bai, oroigarriak kentzen hasi dira. Lehen Condor Legioaren omenezko plaka izan da, eta, horrenbestez, Gernika bonbardatu zuen aire dibisioari ez zaio aitortzarik egiten Almudenan.

El País



Goian, Condor Legioaren omenezko plaka. Behean, plaka bera, testua ezabatuta.

Segiren amaiera

Lekukoa herrietan utzi du Segik

Hamar urteko ibilbidearen ondoren Segi gazte erakundeak agur esan du, agortu da. Zergatik? “Amildegia” hitzarekin erantzun dute Segiko bi kidek arrazoi nagusia galdetu diegunean, gazteriarekiko amildegia. Aitzitik, herrietan gazteek lanean jarraituko dute.

URKO APAOLAZA



2002tik ilegalizaturik egon da Segi eta “erantzun dinamika” batean sartuta zegoen. Segi desagertu da, baina gazte ezkertiar eta abertzaleen erronkek jarraitzen dute: krisiaren zartada, gazteen antolaketaz eta lurraldetasunaz dauden ikuspegiak, herrietan gazteek dituzten arazoak, iraganean izandako jarrerez eta bizikidetzaz hausnarketa...

ITSASU, 2012KO EKAINAREN 24A. “Aro baten bukaera iragartzera gatoz, Segi tresna gisa agortua dela ondorioztatu dugu”. Jada jakina zena solemnitare osoz adierazi zuen Amaia Elixiri bozeramaileak

Segiren amaiera ekitaldian. Erabaki historikoa da, Segik hamarkada bat ez, hiru hamarkadako indarra eta zama baitarama berarekin, Jarraik, Gazteriak eta Haikak utzi ziotena barne. Hemendik aurrera

izango dena “denon eskuetan dago eta denon beharretatik aterako da” diote Ainhoa eta Gorka (ezizenak) Segiko kideek.

Bi gazteen aburuz, faktore ugari bultzatzen dute desagertpena:



Ezkerrean: 2007an Bilboko Esperantza frontoian jendetza Segiko auzipetuei babesema ematen Ertzaintzak atxilotu aurretik. Eskuinean: Itsasun aurtengo ekainaren 24an Segik egindako amaiera ekitaldia, erakundearen desagerpena iragarri zuten.

epe laburreko ikuspegia eduki izana, gettho izaera, gazteriaren desideologizazioa, normalizazio eza eta formaziorako espazio falta, eraginkortasunik gabeko funtzionamendua... Horrek guztiak gazteriarekiko “amildegi bat” sortu du.

Baina, praktikan, egunerokotasunean, nola sumatu da agorpen hori? Erakunde desitxuraturik zegoen, gaitasuna guztiz ahulduta: “Estigmatizazio bat zegoen, herrietan sumatzen zen. Bestalde, erakunde plano politikoan eta gazteen problematikan mugitu izan da beti, baina erabateko desoreka zegoen bien artean, horrek irudikatzen du agorpena”.

Errepresioaren eta erantzunaren zurrunbilatik irten ezinik

2002an Segi ilegalizatu zutenetik bere kontrako pertsekuzioak ez du etenik izan. 2007an Auzitegi Gorenak erakunde terroristatzat jo zuen eta geroztik 150 lagun inguru atxilotu dituzte. Sarekada handiena 2009ko azaroan izan zen, Espainiako poliziek eta guardia zibilek 34 kide atzeman zituzten ordukoan. Azken urteotan sarekada handiak baino, atxilotetak tantaka gertatu dira gehiago, horrek halaberrez eragina izan du jendarteak operazioei emandako erantzunean.

Ilegalizatua eta pertsegitua izanagatik ere, Segik ekitaldiak eta jarduerak antolatu ditu, Estatuari nolabaiteko konfrontazio estrategiaz erantzun dio. Atzetik izandako errepresioa ikusita, asmatu al du estrategia horretan?

–Ainhoa: Erantzun hori errepresioa oztopatzeko izan da, Estatuari egin duena hain merke ez irreteteko. Erantzun behar zen, baina horrek ekarri zuen Gazte Herriaren eraikuntzaren helburua bigarren mailan geratzea. Zurrunbilo batean sartu ginen.

–Gorka: Tresna bera bilakatu zen helburu.

–Ainhoa: Ez nuke esango desegokia izan zenik, baina bai erantzun dinamikan sartu ginela.

–Gorka: Denboran kokatu behar dugu. Errepresioan bi fase daude: ilegalizazioa eman zenetik erakunde terrorista izendatu arte, hor oraindik lan egiteko aukera zegoen, eta hortik aurrera. Bigarren fasean kolpea gazteria osora

“Erabateko desoreka zegoen plano politikoaren eta gazte problematikaren artean, horrek irudikatzen du agorpena”

zabaldu zen, presioa nabariagoa da eta zailtzen du Segik bere proiektua aurrera eramatea. Beste modu bateko formulak aurkitzera derrihortu gaitu, batzuetan eraginkorrak eta bestetuetan ez.

–Ainhoa: Hala eta ere, errepresioak oztopatu du gure jarduera nazio mailan, baina herrietan ez du lortu bertako mugimendua gelditzea; belaualdi berriak lotu dira eta proiektuak sortu dira behin eta berri.

Jarrai/Haika/Segi auziaren bila-kaera funtsezkoa da hau guztia ulertzeko. 2007an Auzitegi Gorenak jurisprudentzia berria ezarri eta 23 auzipetu seina urteko kartzelara zigortu zituen. Haietako 18 Bilboko Esperantza frontoian atxilotu zituen Ertzaintzak, agerraldi publiko batean. Argazki hori inflexio puntu bat izan zen. Geroztik, Espainiako justiziak zigorrak gogortu eta sarea zabaltzen: “Kolpea erakundetik harago joan da, gazteria guztia izan da kolpatua, botere faktikoentzako arriskutsua den mugimendu oro egon da errepresioaren jo puntuan”.

Zergatik luzatu da hiru urtez eztabaida?

Segi desegiteko erabakia militantziaren artean adostu da, kartzelan eta ihesi daudenen artean ere bai,

“ahal izan den neurrian”. Dena dela, erabakia ez da hartu auzipetuta edo zigorrak betetzen ari direnen egoera legalari begira, alde horretatik ez dute borondaterik ikusten: “Erabakia publiko egin zen bezperan, Nafarroako bost gazteren kontrako sententzia jakin genuen; 2009ko azaroan atxilotutakoen auzia mugitzen ari da pixkanaka; Izpuran itxi zirenak ere preso izan dituzte orain arte... Auzitegiek termino politikoetan jokatzeko dute, ez dute borondaterik herri honen gatazkarekin amaitzeko”.

Segiko kideek 2009an hausnarketa hasi zutenean ezker abertzalearen estrategia aldaketa gertatu zen “baina bi karril paralelo izan dira. Gure erabakia ez dator *Zutik Euskal Herriari* erantzutera, bere isla izan duen arren”.

Segik estrategia aldaketa horrekin eta Gernikako Akordioarekin bat egin zuen. Baina bere barruan ezker abertzalearen norabide berriarekiko uzkurutasuna ikusi nahi izan duenik bada hala ere. Eztabaida hiru urtez luzatu izanak adostasunera iristeko zailtasunik adierazten al du? Ezetz diote Segiko bi kideek, luzapena hausnarketa “oso sakon” baten ondorio izan dela, gazteen arazoei erantzuteko estrategia osoaren definizioa egin baita haien esanetan.

Gauza batean kontsentsu handia egon da: Segi agortua dago. “Hasieran denetariko iritziak zeuden, hamar urteko ibilbidearen ondorioz erakundeari eusteko sentimendua zegoen, baina klabe praktikoetan kokatzen ginenean, garbi geratzen zen agortuta zegoela”.

Independentzia eta sozialismoa izan dira aldarrikapen nagusiak. Baina aldarrikapenetik harago, zer egin du Segik?

–Ainhoa: Segiren ekarpen handiena izan da gazte mugimendua indartzea, eta hala, gazte problematikari erantzutea. Independentzia eta sozialismoa gure bizitzetan aplikatzen dugun zerbait dira, iraultza norbere borroka pertsonaletik kolektiboraino zabaltzen da. Ez dira berba hutsalak, egunerokoa isla izan dute, eta hori da inportantea.

“Bi urtetan ekimenik apenas antolatu dugu, baina herrietan gazteak irtenbideak bilatzen aritu izan dira etengabe”

–Gorka: Hausnarketetan hori ere azaltzen zen. Independentzia eta sozialismoa “txapel” bat izatek egunerokotasunean ahalik eta eremu gehienetan praktikan jarritzea.

–Ainhoa: Dena den, errepresioak baldintzatu gaitu, baina nazio eraikuntzari eutsi diogu, lehentasunen artean egon da, eta ondorioztatu dugu hori dela bidea.

Hemendik aurrera, herrietan oinarria

Itsasuko ekitaldian Amaia Elixirik zera esan zuen: “Borrokek jarraitzen dute eta biderkatzen dira, sistema kapitalista irauliko duten

borrokez ari gara”. Krisi ekonomikoaren ondorioz sorturiko mugimendu anitzei eginiko keina dirudi. Segiren barruan opinio ezberdinak daude talde horiez, baina gazteriak kalean egon behar duela garbi dute, krisiari erantzuten: “Bai hemen, bai udaberri arabiarrean eta baita M-15ean ere, gazteria da mugimendu horien abiarazlea, lehen lerroan dagoena. Erantzukizunaz jokatzeko ari da eta hori pozgarria da”.

Segi desagertzean talde berri bat sortuko dela espekulatu izan da. EFE agentziak “Kimua” izeneko talde baten berri eman zuen. Segiko ordezkariak erabat gezurtatu dute halakorik, ez da izango Segi ordezkaturiko duen erakundetik. Ez da izango, ezta ere, alderdi baten menpeko talderik: “Gazteen estrategia helduen munduaren arabera izatea, naturaltasuna, grina eta benetako potentzialtasuna galtzea litzateke”.

Hemendik aurrerakoak herrietan izango du oinarria, hori ikusi dute lanerako esparrua, gazteen arazoei maila lokalean aurre egiten, tokian tokiko ezberdintasunak kontuan hartuz:

–Gorka: Bi urtetan ekimenik eta kanpainarik apenas antolatu dugu, baina herrietan gazteak euren nahiei erantzuten eta irtenbideak bilatzen aritu izan dira etengabe.

–Ainhoa: Hein handi batean lekukoa mahai gainean lagatzea da, hau tresna baten agorpena da, baina ez gazteen borrokaren amaiera. ■



Joxe Azurmendi
BAKEA GUDAN
UNAMUNO,
HISTORIA
eta KARLISMOA

www.txalaparta.com
txalaparta

«Ez zuen nazio-arazoa konpondu ahal izan Unamunok, ahalegindu zen arren hil arte, ondoko espainol eta euskaldun askok ere konpondu ezin izan dugun bezala»

Joseba Sarrionandia



Iruzur fiskala

Ogasunaren ezkutuko amnistia

Espainiako Gobernuak diru beltza %10eko interesarekin zuritzeko ezarri duen amnistia fiskala lehendik ere bazegoen nolabait. Ogasunak askotan nahiago izaten du iruzurgileekin diruaren itzulketa adostea auzitegietara jotzea baino, eraginkorragoa delakoan.

DANIEL UDALAITZ

HEGO EUSKAL HERRIKO OGASUN gehienek garbi adierazi dute ez dutela aplikatuko Espainiako Gobernuak agindu duen amnistia fiskala. Diru beltza erregularizatze-ko aukera eman du Rajoyren Gobernuak, %10eko interesa baino ez kobratuz. Modu horretan, 2.500 milioi euro eskuratu nahi ditu azaroaren 30erako. Foru administrazioetatik iruzurgileak saritzea leporatu diote Espainiako Gobernuari, Bizkaiko ahaldun nagusiak, esaterako, “etikoki onartezina, politika defendaezina eta sozialki bidegabea” dela adierazi zuen.

Baina egiaz, amnistia fiskal moduko bat jada aplikatzen dute ogasunek, iruzurgileekin dirua itzultzeko neurriak hitzartzen dituzten heinean. Kasu larrietan kartzela saihesteko akordio lotsagarriak izan dira gainera. Esaterako, hortxe dugu Praxair multinazionalaren adibidea. Espainiako Ogasunari 164 milioi euroko iruzurra egin ziola onartu zuen; bada, 13 zerga delitu egin arren, bere arduradunak ez ziren kartzelatik pasa, administrazioarekin hitzartu eta gero 264 milioi euro ordainduko zituztela. Ez dago dirua edukitzea bezalakorik. Gure herrietako “ohiko gaizkileei” aplikatzen zaien politikarekin erabat kontraesanean dago hori: biltegi batean lapurtzen duenari lapurreta leporatzen diote, eta isuna ordaintzea ez da nahikoa espetxea saihesteko. Zuzenean kartzelara joango da.

Espainiako legedia –eta honenbestez Hego Euskal Herrikoa– oso lasaia da zerga delituei dagokienez –PPk esku artean duen lege proiektu-



Iruzurgileekin dirua itzultzeko neurriak hitzartzen ditu sarritan Ogasunak.

tua barne–. Herrialde askotan, esaterako Alemanian, AEBetan eta Herbehereetan, iruzur egiteko asmoa hartzen da kontuan delitua den hala ez erabakitzeke, ez diru kopurua. Aldiz, Espainiako Estatuan 120.000 eurotik bera ez dago zerga deliturik, eginbidea ez betetzea baizik, eta horrek isuna ekar dezake, baina ez kartzela zigorra.

Iruzur fiskalak egoera larria sortu du. Hego Euskal Herrian urtero 13.000 milioi euroko iruzurra gertatzen dela kalkulatu izan da, BPGaren %15-20 inguru. Azken urteetan foru ogasunek ardura handia izan dute iruzurra pertsegitzeko: Gipuzkoak 2011n 312 milioi euro azalerratu zituen, Bizkaia 560 milioi euro, Arabak 96 milioi euro eta Nafarroak 88 milioi (2011ko abuztura arteko datua). Guztira: 1.056 milioi euro.

Jakina, azalerraturako iruzurraren zenbakiak oso txikiak dira, kalkuluen arabera saihestutako 13.000

milioiekin alderatuta. Administrazioen arteko koordinaziorik eza izan daiteke arazoaren arrazoietakoa bat.

Espainiako Estatuak 2010ean 3.000 aberatsen kontuak atzeman zituen Suizan, zer gertatu da haiekin? Eta horien artean dauden 300dik gora euskal herritarrekin? Eta banku batean zeuden 6.000 milioi euroekin? Espainian sektoreko ordezkari gehien biltzen duen Ogasun Ikuskarien Erakundearen arabera, “fiskoak, kasuak zuzenean auzitegietara eramanez, zenbaterako horien borondatezko erregularizatzea eskatzea eskandaluzko faboritismoa da”. Haien ustez, Ogasunaren jokaerak “zerga amnistia” kutsua du. Bada, azaroaren 30ean PPren amnistia fiskal “ofiziala” amaitzen denean, amnistia fiskal ezkutuko honek segituko du. ■



Inazio Arregi
Tokikomeko lehendakaria

«Bakarria nekez egingo dugu aurrera»

Tokikom 2009an sortu zen eta aurten enpresa izaera hartu du Topagunearen eta bertako 19 hedabide bazkideren eskutik. Tokiko hedabideen geroa elkarrekin diseinatu nahi dute. Etorkizuna usaintzen lagundu digu Tokikomeko lehendakari eta Goienako zuzendari Inazio Arregik.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Argazkiak: Dani Blanco

Etorkizuna Interneten dagoela esaten da, baina Tokikomeko hedabideen kasuan ere, ez al da gaurkoz oinarria papera?

Momentu honetan nagusi papera da, askogatik. Asko hitz egiten da digitalaz. Duda barik etorkizuneko hedabidea izango da; erabilera anitzekoa delako, edozein momentutan kontsulta zenezakeelako telefono txiki bat baino behar ez duzula. Alabaina, guk egindako galdeketek esaten dute papera dela gehien irakurtzen dena etxeetan, digitala bigarren mailan dago. Bost urte barru digitala hedabide gisa non egongo den ez dakit.

Irakurleak kontuan hartuta diozu. Eta sostengu ekonomikoari begiratuz gero?

Paperak kostu handiagoak dauzka Internetek baino, edukiak jasotzeko, neurri batean, kostua erabiltzaileak bereganatzen duelako. Berak ordaintzen du ordenagailua, berak ordaintzen du kablea, kontsumoa. Hala ere, publizitatearen proportzioa ez da kostuaren arabera mantentzen paperean eta Interneten. Interneteko publizitatea gaur-gaurkoz oso murrizta da. Nahiz eta paperak bere burua ordaintzeko nahikoa lan izan, bere burua ordaintzen duen hedabideen artean dago. Aldiz, Interneten webgune ona



“Amarauen asimetriak egongo dira eta onartu beharko dugu hedabide bat bestea baino indartsuagoa izango dela”.

kaleratu nahi baduzu, horrek kostu batzuk dauzka eta itzulera ekonomiko gutxi.

Internetekoak ez al du bere burua sostengatzen?

Ez. Paperean badituzu kostuak, inprentakoak, banaketakoak, baina horren ordaina zuk jasotzen duzu,

irakurleak zuri ordaintzen dizu. Interneten erabiltzaileak telefono operadoreari ordaintzen dio.

Praktikan paperak du indarra, teorian digitalera begira gaude.

Praktikan ere digitalean ari gara. Smartphone-ak, iPad-ak direla, mila euskarri dauzkazu nahi duzun

informazioa jasotzeko eta nahi duzun momentuan, kioskoa etxean daukazu. Erosoa da eta Interneteko kontsumoak gora egingo du, beti ere jendea ohituz doan neurrian. Zeren gaur-gaurkoz diferentzia handiak daude adin tarteen arabera. Belaunaldi berriak etorri ahala hazi egingo da Interneteko kontsumoa. 5-10-15 urte barru duda barik...

Teknologiaekin hezitako jendea izango da.

Jauzia ez da izango iragarri zaigun bezain bat-batekoa eta azkarra, baina tendentzia hori izango da.

Hausnarketa txostenean bi solairuko eraikina aipatzen duzue; informazio orokorreko hedabideak (publikoak eta bestelakoak) goian eta behean tokiko hedabideak, bi solairuak harremanetan. Azaldu gehiago, mesedez.

Bi solairuena beste modu batez azalduko dut. Egoera berrietara egokitu beharra edukiko dugu denok, tokiko prentsak, prentsa nazionalak, telebistak, eta abar. Egokitzapen horrek lau zutabetan oinarrituta egon behar du. Batetik, efizientzia gehiago bilatu beharko dugu bakoitzak bere esparruan, lantokian eta eginkizunetan. Efizientzia diodanean esan nahi dut gauzak ondo egitea baliabide gutxiagorekin. Bigarrenik, efizientzia lortzeko lana erraztuko diguten elementu teknologikoak beharko ditugu. Hirugarrenik, berrikuntza, berrasmaketa. Seguruenik atzo ondo zegoenak gaur ez du balio. Laugarrenik, amarauna, baina ez naiz ari Interneteko amaraunaz. Nahi duten hedabide guztiek harreman sare bat osatuko lukete. Amarauna ez dut ulertzen gauza simetrikoko bat bezala, nik hau ematen dut eta hau jasotzen dut, batzuek gehiago emateko aukera edukiko dute eta gutxiago jaso. Asimetriak egongo dira eta onartu beharko dugu bata bestea baino indartsuagoa izango dela. Baina jakin beharko dugu amaraun horretan jokatu beharko dugula denok, bakarka nekez egingo dugu aurrera.

Amarauna osatzen ari al da?

Gure asmoa tokiko hedabideen artean elkartrukerako ohitura

batzuk sortzea da. Badaude inizatiba batzuk, esate baterako, iragarki-laburrak.com, *Berriak* sortu zuen webgunea. *Goienatik* iragarki labur asko joaten dira horra. *Berria.infok* eta gure webguneak [*Goiena.net*] hitzartua daukagu informazio trukea. Tokiko hedabideen artean telebista programen trukea badago. Hobetuz joango da trukea, esate baterako telebisten esparruan, oso garestia delako tokiko telebista mantentzea eta egunean hamar orduko programazioa ematea.

"Hamabostean behin etxeko buzoian lagatzen dizuten aldizkaria oso interesgarria izango da etxera iritsi zaizun ostiral horretan, baina beste hamabost egunetan nola elikatu zara?"

Tokiko hedabideek eduki orokorragoak lantzeko aukera mahai gainean jarri duzue.

Beti errebisioan egon behar duen kontzeptua da tokikotasuna. Orain hogeitau urte tokikoa herrikoa zen, gaur egun tokikoa izan daiteke eskualde geografiko, administratibo edo soziologiko batekoa.

Bestalde, erabilzaileak webgurea jo eta tokiko informazioa nahiko du, baina prezio berean zerbait gehiago ematen badiotzu hobe. Adibidez, munduko albiste garrantzitsuenak ere ematen badizkizut zerbaitu gehigarria ari natzaizu eskaintzen. Bestela zera gertatuko zaio irakurleari: hedabide hau dauka eskualderako, beste hau Gipuzkoarako, beste hau Euskal Herrirako, eta mundukoak jakiteko beste hau.

"Perbertsoa da pentsatzea erdarazkoak ordainekoa izan behar duela eta euskarazkoak beti dohainekoa"

Dagoeneko lantzen al da informazio orokorragoa tokiko hedabideetan?

Aldatu da tokikotasun kontzeptua, lehen oso zurruna zen. Dorre Bikiak erori eta han zegoen eskualdekoren bat [Debagoienakoa] aurkitu behar genuen Dorreen berri eman ahal izateko. Notizia ez da gure eskualdeko bat han egotea baik eta Dorreak erori direla. Denbora behar da norabidea aldatzeko.

Tokikoak eskualdekakoak izatea ezinbestekoa al da?

Tokiko hedabideak herrikoak ekimen xumeen bidez sortu eta garatu dira, baina horrek ere ekarri du desoreka. Eskualde batzuetan sortu dira, beste batzuetan ez, eta beste batzuetan ez dute asko iraun. Araban ez dago tokiko hedabide askorik, Bizkaiko Ezkerraldean ere apenas. Zer esan Nafarroaz.

Gaur egun bizi dugun egoeran eta etorkizunean, Gipuzkoako eredu, herriko hedabideak izatea, ez dakit Euskal Herri osora zabal daitekeen eta ez dakit efizientea den euskara biziberritzearen ikuspegitik. Irakurriko duzu debalde etortzen zaizun hori, baina hori baino garrantzitsuagoa da jendea euskaraz bizi izaten ohitzea. Horretarako hedabide indartsuak behar dira, Interneten informazioa une oro, telebista... Alde horretatik, herriko aldizkaritxo mugatua da. Erabilzaile euskaldunak ez dauka erdal-dunak izan dezakeen montaje komunikatiboa eskura. Horretarako enpresa ikuspegia behar da, eta kopuruak, ekonomikoak eta erabilzaileari dagozkionak.

Eskualdea da eredu?

Izan daiteke. Zerbaitetan ados jarri behar dugu eta esan dezagun eskualdea, baina agian Gipuzkoan era batera egin daiteke eta beste lurraldeetan beste era batera.

Tokiko hedabideak doan izateak zein alde on eta txar izan ditu?

Duda barik, ekarri ditu onurak. Bestela irakurtzen inoiz hasiko ez zen jendea irakurtzen hastea ahalbidetu du. Baina perbertsoa da pentsatzea erdarazkoak ordainekoa izan behar duela eta euskarazkoak beti dohainekoa. Truke kontzeptuak beharko luke: zuk egiten duzuna erakargarria bazait ni ordaintzeko prest nago.


Beraz, baliabiderik ez baldin badaukazu eta egiten duzuna ez bada niretzat erakargarria, erdarazkoa ordainduko dut, eta euskarazkoa dohainik jasotzen segiko dut. Hori ez da abantaila euskararentzat.

Hamabostean behin etxeke buzoian lagatzen dizuten aldizkaria oso interesgarria izango da etxera iritsi zaizun ostiral horretan, baina beste hamabost egunetan nola elikatu zara? Joan beharko duzu kioskora eta erosi beharko duzu *Gara*, *El Diario Vasco*, *Noticias de Gipuzkoa* edo *Berria*, eta zoritxarrez, euskaldun gehienek gaztelerazkoak hautatzen dituzte.

Politika hori aldizkari horrentzat balekoa da, baina hor geratzen da. 800.000 euskaldunak euskaraz bizi ahal izatea nahi baldin badugu, onartu beharko dugu lehenago edo geroago ordaindu egin beharko dela. Jauzia egiteko, beste diru sarrera batzuk beharko ditugu. Emailearen eta hartzailearen arteko dialektikak egon beharko du, nik zuri eskatu egingo dizut, baina orain baino gauza hobeak emango dizkizut. Hamabostean behin ordez astero emango dizut eta Interneten egunero izango duzu nire berri, esate baterako.

Eusko Jaurlaritzak diru-laguntzak murriztu dizkie tokikoei eta 2013rako hobekuntzarik ez duzue espero.

Jaurlaritza baino instituzio denak aipatuko ditut: Jaurlaritza bera, foru aldundiak eta udalak. Batetik, geroz eta diru gutxiago daukagu. Bestetik, ez dezagun ahaztu instituzioek alde administratibo-profesionalaz gain, alde politikoa dutela eta hor alderdiak daude. Alderdiek beste gauza batzuk dituzte agendan, euskarazko hedabideak ez. Ez dira lehentasun, ez da parlamentuan horretaz hitz egiten. Inertziaz jokatzen dute administrazioek eta alderdiek. Alderdi bat ailegatzen denean instituziora zer egiten du? “Zer ematen zuen aurre-



“Gure nahia, diru-laguntza kontzeptua hitzarmen kontzeptuaz ordezkatzea da”.

koak? Hainbeste. Nik diru gutxiago daukat, bada gutxiago”.

Esaten dugu euskarak bizirauteko hezkuntza, administrazioa eta hedabideak behar dituela. Badakigu, gutxi gorabehera, zer pentsatzen duen edozein alderdik hezkuntzan eta administrazioan euskara kudeatzeari buruz, baina hedabideez zer uste duten ez dakigu ezer.

Horrela segiko al dugu?

Elkartea [euskarazko hedabideen

sektorearena] ari gara sortzen. Urte aberasgarriak izan dira barrura begira eta administrazioarekin etorkizunean izan genezakeen solaskidetza begira. Gure nahia, diru-laguntza kontzeptua hitzarmen kontzeptuaz ordezkatzea da. Lau urterako lasaitasun ekonomikoa emango lieke bide horrek hedabideei, eta egitasmo berri eta erakargarriagoak abiarazteko aukera. ■



Babeslea: IVAP

“IVAPen misioa da Euskadiko Herri Administrazioetako pertsonak eta antolakuntza hobetzea, administrazio eraginkorragoa, efizienteagoa eta elebiduna lortzeko asmoarekin, eta zerbitzu publikoko zenbait balio komun oinarri hartuta. Horretarako, honako hauek egingo ditu:

IVAP
HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- Euskadiko Herri Administrazioen zerbitzura dauden langileei etengabeko prestakuntza eman eta langileak hautatu.
- Euskararen erabilera administrazioan normalizatu dadin sustatu.
- Itzulpen ofizialak eta lege- eta administrazio-artoko euskarazko terminologia.
- Hizkuntzari, legerari eta antolamenduari buruzko aholkularitza, eta antolaketa eta kudeaketaren inguruko ikerkuntza.”



%13,3: Goia jo du euskararen erabilerak

JOAN DEN ASTEAN Soziolinguistika Klusterrak Euskal Herriko Kale-Neurketaren emaitzak azaldu zituen. Neurketa 2011ko udazkenean egin zuten, Euskal Herriko 97 udalerritan. Kalean entzundako elkarrizketen %13,3 izan ziren euskaraz. Klusterraren arabera, kaleko euskararen erabilerak goia jo du, bai behintzat egungo baldintza soziolinguistikoak aldatzen ez badira. Hots, erabilerak gora egingo du baldin eta euskal hiztun kopuruak nabarmen gora egiten badu, eta aldi berean, euskaldun horiek egunero-

ko harremanetan euskara erabiltzeko aukera gehiago badute. 1989an ehuneko %10,8 izan zen eta orduz geroztik lortu den datu onena 2006koa da: %13,7. 2011n 2001eko ehuneko bera lortu da: 13,3.

Azken hamarkadako geldialdia kezkatzekoa da, eta aldi berean, euskaldunek euskararekiko duten atxikimendua poztekoa. Kontuan hartzen badugu euskal herritarren %33k euskaraz dakiela, kalkulu estatistikoek diote erabilerak %7,7koa beharko lukeela izan, eta Euskal Herriko batez besteko tasa 13,3koa da.

Hausnarketa uztailearen 16an eta 17an, Donostian

Soziolinguistika Klusterrak EHUko Udako Ikastaroak baliatuko ditu Euskal Herriko Kale-Neurketaren emaitzak aztertzeko. 2011ko datuak eskuan dituztela, kale erabileraren bilakaeraz, egoeraz eta joeraz gogoeta egingo dute.

Beste hizkuntzek egin dute gora

Euskararen, frantsesaren eta gaztelaniaren erabilerak hainbat puntu egin dute behera 2006tik 2011ra. Lehenak, esan dugun moduan, lau hamarren, eta beste biek 0,6 puntu. Aldiz, bestelako hizkuntzek egin dute gora lau urteko epean. 2006an hasi ziren kale neurketetan bestelako hizkuntzak aintzat hartzen eta orduan elkarrizketen %2,6 izan ziren euskara, gaztelania eta frantsesa ez diren hizkuntzetan. 2011n %3,7 da datua. Bilboko, Gasteizko eta Iruñeko adibideak deigarriak dira, hiru hiriburuetan euskaraz baino gehiago entzuten delako beste hizkuntzetan (gaztelania albo batera utzita, noski).

Biztanle gehienak zonalde erdaldunenean bizi dira

Euskararen ezagutza %25 baino gutxiagokoa den eremuetan Euskal Herriko biztanleen %70 bizi da. Erabilerak %3koa da. Klusterrak garbi adierazi duen moduan, erabilerak bermatzeko giltzetako bat hiztun kopurua da, eta emaitzetan ondo ikusten da: zenbat eta zonalde euskaldunagoa izan erabilerak gora egiten du. Esate baterako, ezagutza %25-%50 artekoa den tokietan erabilerak %14-15koa da. Euskararen ezagutza %75-%100koa den zonaldeetan erabilerak %66koa izan da.

Klusterraren txostenean nabarmentzen den beste datua da euskara gehien erabiltzen dutenak 15 urtetik beherakoak direla. Adin tarte horrek ordea, adin piramidean pisu gutxiago du.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Pribilegiatuenak zergapetu behar dira

“Ez dago beste irtenbiderik, ez dago murrizketa sozialak ezartzea beste erremediorik”. Horrelaxe justifikatzen dute euren burua ohiko agintariak, izan sozialdemokratik, izan eskuinekoak. Aitzitik, inposatu diguten eta jasaten ari garen doikuntza soilaren, basatiaren eta antisozialaren aurrean, badaude alternatibak. Bai teoriarik, baita praktikan ere. Subiranotasun faltagatik euskal herritarrok ere Espainiako eta Frantziako estatuen politikak sufritu behar ditugu. Bada, joan den astean, euren gobernuak defizita murrizteko zerga berriak iragarri zituzten.

Frantziako Gobernuak erabaki du, beste neurri batzuen artean, ondarearen gaineko zergak zituen salbuespenak kentzea, eta 2.300 milioi euro biltzeko asmoa du neurri horrekin; BEZaren igoera bertan behera utziko du; enpresariak ordu estrak kotizatzean zituzten salbuespenak kendu egingo ditu -1.000 milioi euro lortuko ditu horrela-; 2012an 300 milioi euro eta 2013tik aurrera 1.000 milioi euro ekarriko dizkion dibidenduen gaineko %3ko tasa sortuko du; akzioen gaineko aukeren zerga (*stock options*) %22tik %40ra igoko du; eta abar. Aldiz, Espainiako Gobernuak 30.000 milioi euroko murrizketak egingo dituela esan du, BEZa igoz, autopisten eta erregaien gaineko zergak igoz, pentsio sistema erreformatuz eta “gastu publikoan murrizketa gogorra” eginez. Horretarako, 300.000 lanpostu publiko ezabatuko litzuke eta elkarte publikoak pribatizatu.

Bi adibide horiekin ikus daiteke oso garbi nola erabakitzen den politika fiskala. Erabaki erabat ezberdinak dira: Hollandek pribilegiatuenei ordainaraziko die krisia; Rajoyk, ahulenen kontra ekin du berriz ere. Bistakoa da badaudela beste alternatiba batzuk, Frantziako Gobernuarenak baino sakonagoak ere bai!

Juan Mari Arregi



Birziklatzea ardatz balitz...

EAJ-K badaki Juan Carlos Alduntzinen ordez beste diputatu bat jarriko dela eta listo, Bilduk argi iragarri du hori egingo duela. Alduntzin aferari dagokionez, koxkak badiu bi ertz, bata, Martin Garitanoren Gobernuaren higatzea da, eta bestea errauskailua. EAJren PSEren eta PPren oposizioak, edozeren aurretik erakutsi nahi du Garitanoren gobernuaren gutxiengoan dagoela. Eta hala da, baina hori hasieratik ezaguna zen eta koalizio soberanistak berak ere

bazekien agintaldia oso gaitza izango zela. Hori da logikoena gainera, Bilduk bere hautesleriari eutsi nahi badio, orain arteko instituzioen politiketatik nabarmen alden du behar delako.

Ez da samurra gaiak nola bukatuko duen iragartzea, dena baita posible, baina beti ere EAEko hauteskundearen ondorenera arte itxaron behar da. Bilduren Gipuzkoako emaitzak ikusi behar dira eta baita Eusko Jaurlaritzan nola osatzen den ere.

Bitartean, Gipuzkoako Batzar Nagusietako oposizioak bere lanarekin jarraituko du: hurrengo saioa Bilduri San Marko Mankomunitateko agintea kentzea izango da, Bilduri Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoan estutzeko. Baina ez du samurra izango, kudeaketa gune horretan Aldundiak %33ko ordezkaritza duelako, eta beraz, Bilduk gehiengo zurtaturik dauka. Edonola ere, kolpe latza litzateke Bildurentzat, mankomunitatearen eta Batzar Nagusien sostenguarekin oposizioak bere gehiengo erakutsiko lukeelako gai horretan.

Horrek egoera estuagoan jarri-



ko luke Garitanoren Gobernuaren, baina ezin da ahaztu hondakinen gaia ez dela Aldundi osoa, eta azkenean Garitano ez dela joango konfiantza mozio baten bidez, zentsura mozioarekin baizik.

Aferaren bigarren atal handia errauskailuarena da, eta hor jarre-rak hurbiltzeko aukerak hutsalak dira. Bilduk errauskailu txiki bat onartzeak –hori nahiko luke oposizioak– barne arazo larriak ekarriko litzeki, eta bide hori baztertua dagoela esan liteke.

Hondakinen arazoaren muinean, oposizioak errauskailua baino birziklatzearen gaia jarriko balu, pentsa liteke negoziatio tarte asko handituko litzatekeela. Atez ateko bilketak erakutsi du sistema ona dela

Horrek balio dezake Bermeon, Zarautzen edo Elizondon euskal komunitate osasuntsuak izateko, baina etorkizun beltza iragartzen du Gasteiz, Bilbo edo Iruñekoentzat

birziklatzeko, orain arte Euskal Herrian izan den onena, baina sistema zehatz hori balitz arazorik handiena –eta ez Zubietako errauskailua– akordio bide zabalak ireki ahalko lirake. Bilketa moldeaz harago, baldintza bakar bat litzateke ezinbestekoa: birziklatzea derrigorrezko bihurtzea eta ez norberaren borondatearen arabera, gizarteko beste hainbat alorretan gertatzen den moduan. Era horretan bakarrik egin liteke aurrera mundu jasangarri

baterantz, gainerakoak kapitalismo berdearen sasi bideak besterik ez dira.

SOZIOLINGUISTIKA Klusterraren azken azterketak datu entzutetsu bat utzi du kalearen erdian: euskararen kale erabileraren datua duela 10 urte bezala dago, %13an. Eta, zalantza barik, hori kezkarria da etorkizun proiektua izan nahi duen hiztun komunitatearentzat. Horrek balio dezake Bermeon, Zarautzen, Zarautzen edo Elizondon euskal komunitate osasuntsuak izateko, baina etorkizun beltza iragartzen du Gasteiz, Bilbo edo Iruñekoentzat, hizkuntza pertsonari moduan baitago lotua lurraldeari ere.

Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian, bere eskubide linguistikoak daude arazoaren oinarrian. EAEn, erabileraren estrategia zehatz berriak finkatzea, besteak beste, hezkuntza, administrazioa, aisia, hedabideak eta lan mundua sendoa-go jorratuko dituen, azken hiru esparruak bereziki.



PELLO ZUBIRIA

Milioi bat sinadura erremedio naturalak salbatzeko European

Atxikimendu bilketan ari dira sendabide alternatibo eta osagarrietan dabilzan hainbat eragile: fitoterapiako produktuen ekoizle, sendalari, mediku, gaixoen elkarte eta abar. Europar Batzordearen 1924/2006 zuzentarauaren aplikazioa geldiarazi nahi dute, multinazionalen esku ez dagoen guztia suntsituko ote duen beldurrez.

1924/2006 ZUZENTARAU ZER DEN adibide batez azaltzea eskatzen badiozu, hori geldiarazteko sinadura bilketan dabilenak urarena aipatuko dizu: ur botila baten etiketan ez daukazu ipintzerik “urak gutxitzen ditu deshidratazioa nozitzeko arriskuak”. Harrigarria bezain argigarria.

Europako Janariren Segurtasun-erako Agintaritzaren (EFSA ingelesezko sigletan) buletinean daukazu 2011ko urtarrilaren 28an erabakitakoa: Moritz Hagenmeyer eta Andreas Hahn doktore eta irakasleek eskatu baldin badute urari aitor dakiola deshidratazioa nozitzeko arriskuak gutxitzeko daukan ahalmena, EFSAren barruko *Panel on Dietetic Products, Nutrition and Allergies* batzordeak ezezkoarekin erantzuten die. Laburbilduta, ura ez denez deshidratazioa saihestu edo hobetu dezakeen botika, ezin dute horrelakorik iragarri.

Hagenmeyer eta Hahn doktoreek probokazio moduan egingo zuten baimen eskaria, EFSA harrapatuz azken urteetan negoziaketa luzez erdietsitako araudiaren baldintzen amaraunean. Baina nola ukatu daiteke hain begi-bistakoa dena etiketan jartzeko baimena?

Fitoterapia Holistica izeneko buletinean *La normativa comunitaria sobre complementos alimenticios* artiku-

luan Angeles Navarrok esplikatu du beharrezkoa zela araudi europar bat bilduko dituen herrialde bakoitzak dauzkan lege eta arauak erremedio natural eta elikadurako osagarrien alorrean. Horren bila hasita heldu zen Europar Batzordea 1924/2006 zuzentaria idaztera. Orain lehenbiziko ondorioek piztu dituzte alarmak erremedio alternatibo, natural eta osagarrietan dabilzan profesional eta erabiltzaile askoren artean.

Sinadura bilketa jarri dute martxan herrialde askotan, arau hori berriro Europako Parlamentuak eztabaidatu dezan, baliatuz Lisboako itunak herritarren esku lagatzen duen azken aukera. Europar Batasun osoan milioi bat firma behar dituzte. Frantzia eta Belgika frankofonoan kanpaina berezia darama Institut pour la Protection de la Santé Naturelle (IPSN) erakundeak.

IPSNko Augustin de Livoisek idatziz eta bidez laburbildu du kanpainaren mamia: “Pentsa ezazu haurra edo bikotekidea larri gaixotuta daukazula, badagoela erremedio natural bat arriskurik eta alboko kalterik gabekoa menturaz senda lezakeena... baina Europar Batasunak ahalegin guztiak egiten dituela zuk ezagutu ez dezazun. Aitzitik, agintariek bultzatzen zaituzte gaixoari ematera botika kimikoak alboko kalte larriak eman ditzaketena. Zu

Essenciagua izeneko olio esentzialak ekoiztu eta saltzen dituen Laurent Gautunek bere gunean dauka argazki hau, non ageri baita artisaua bere produktu naturalak saltzen Frantziako herriren bateko azokan. Fitoterapia, olio esentzialak eta gizakien osagarria artatzeko beste hainbat erremedio lantzen dituzten profesionalak kexu dira Europako legediak beren jarduerak itoko dizkielakoan. Gaiotan, nekazarien produktuen komertzializazioan bezala, Frantzia da legeak estuen aplikatzen dituzten herrialdeetako eta horregatik mobilizatu dira hemen hain arin profesionalak eta kontsumitzaileak. Espainian, agian Europako legeak modu lasaigoan aplikatzen direlako edo oro har kontrolak arinagoak direlako, ez da halako zalapartarik entzun. 1924/2006 zuzentariauaren kontrako kanpaina milioi bat sinadura bildu nahi dituzte Europa osoan.

haien esku zaude. Amesgaizto absurdo hau da Europa eta bere biztanleak mehatxatzen dituen, zu eta biok barne”.

Arau berriarekin herritarren eskuetatik urrun geratuko omen dira oligoelementuak, mineralak, bitaminak, aminoazidoak eta abar, zuzentariau berriagatik etiketan ezingo dutelako azaldu zertarako diren mesedegarri. Baimen berriak lortzeko froga garestiak multinazionalak bakarrik egin ahalko dituztenez, produktuekin batera desagertu daitezke belar-dendak, produktu naturalen fabrikatzaileak eta hauekin milaka ekoizle txiki.

Sendabelarre eutanasia

Europe Ecologie taldeko Michèle Rivasi europarlamentarioak 2010ean *Rue 89* gunean azaldu zuen gatazka zertan zetzan *Mon plaidoyer pour les plantes médicinales* (Sendabelarren aldeko nire aldarria) artikuluan, tesuingurua eta bere kezka azalduz.

Landarez egindako produktuak bi sailetan daude berez banatuta: farmazia alorrekoak Europako Farmazia Agentziak (EMA) kontrolatzen ditu eta elikadurako osagarriak jotzen direnak EFSAk. Farmazietan saltzeko lehen bidetik sartu ziren ekoizle asko.

“2004an THMPD zuzentariau –idatzi du Rivasik– plazaratu zuten,



erantzun: 2008an aurkeztu ziren 4.640 eskarrietatik 222 baino ez daude baimendurik.

IPSNko Augustin de Livoisen aburuz “orain arte Europan izan den ofentsibarik gogorrena da libreki gure buruak sendatzeko daukagun eskubidearen kontra. Araudi berriaren helburua oso da nabarmena: farma-industriari etorkizunean milaka milioiko etekinak segurtatzea, gaixoak behartuz industria kimikotik eratorritako botikak hartzera. (...) Hau da gure osasunaren eta bizien kontra sekula egin den lapurretarik handiena”.

Baimen ematen dituen EFSA bera dago auzitan, bere aditueta asko multinazionalen enplegatu edo kolaboratzaileak direlako. Corporate Europe Observatory behatokiak badauka horretaz dossier gogor bat plazaratua: “*Conflicts indigestes. Une decennie d’influence industrielle à l’Autorité Européenne de Sécurité Alimentaire (EFSA)*”.

Behatokiak salatu du EFSako kide askok lotura oso estuak dituztela elikadurako, bioteknologiako eta kimikako korporazioekin, EFSAren zuzendaritzan sartuta daudela multinazionalak eta hauen interesak defenditzen dituzten lobbyak, hala nola International Life Sciences Institute.

Horrek esplika lezake De Livoisek salatzen duen astakeria: “EFSA iritsi da debekatzera arripasen etiketan jartzea ahalmen laxantea daukatela, aurretik ez badira egiten saiakera klinikoak milaka euro kostatzen direnak”. ■



arautzeko landareak, algak, onddoak, likenak, gordinik bezala iharturik, kapsuletan edo hautsean, baita tintura, estrakto, olio esentzial edo zukutan ere. Intentzio onez abiatu zuten zuzentaraua, edozein substantzia bere usadiozko ondorio terapeutikoen arabera sailkatzeko. Geroztik ikusi da, ordea, THMPDk porrot egin duela”.

Erregistratzeko sistema ikaragarri konplikatua ezarri dute, dio Rivasik. Kosta berdina: produktu bat inskribatzea 60.000 euro kostatzen da. Ondorioz, 149 landare medizinal baizik ez dauka farmaziako produktutzat onarturik gaur egun EMAk.

2006an hasi zen Europa bigarren bidea lantzen, elikadurako osaga-


rrien eremuan ordena jartzeko. Baina laster okertu ziren gauzak, eta Rivasik alarma deia zabaldu zuen: “Sendabelarren egoera ez da lehenetik oso ona Europan. (...) THMPDk markatzen duen trantsizio aldia bukatutakoan, baimendu gabeko landareak saldu ahal izango dira baina beren ahalmen terapeutikorik aipatu gabe. Ezer aldatzen ez bada, Europako bi legeok eragingo duten kolpea suntsitzailea izanen da”.

Produktu bat 1924/2006 aruari egokitu nahi dionak hasteko adituen dossierrak bildu behar ditu, dozenaka mila euro pagatuz. Ondoren 4 urtez itxaron batz bestea. Eta azkenean, deusetarako: aurkeztutako eskarien %95k ezezkia jaso du



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Zerbitzua
Kalitatea
Garantia



Joxe Iriarte, *Bikila*

Inposaketa(k)

Duela gutxi arte, *inposaketa* hitza, ezker abertzalearen eta ezker muturrekoen hitz totemikoa genuen. Borrokarako akuilu. Arazoak arazo, gaiak gai, sistemak edo beren aldeko instituzioetatik inposatzen ziguten oro salatzeko erabiltzen genuen hitza. Alabaina (ez dakit noiz arte), nola aldatzen diren gauzak! Gipuzkoan immobilisten ikur bihurtu da.

Bestaldetik, merezi du hitza aipatzeak, eztabaida horrek duen garrantzia kendu gabe, harritzekoa da zer-nolako garrantzia eman dioten gaiari, gatazka –edo arazo– guztien ama bailitzan! Eztabaida horretan, oposizioak inposatzailetzat jotzen du Foru Aldundiaren plana. Harrigarria benetan, urtetan, Batzar Nagusien aldean Diputazioa ia hutsaren pare bihurtu zutenak (batzarkide nintzeko garaia gogoratzen dut, Batzar Nagusiek A-8 autobidearen bidesariaren alde bozkatu zutela, baina PNVren eskuetan zegoen Diputazioak ez zuen aintzakotzat hartu. Agintearen makila eskuz aldatu delarik, hortik komeriak) eta herri galdeketa ez entzun ere nahi ez zutenak, haserre bizian kontrako bidean aldarrika ikustea orain. Memoria interesatua baita. Nolabait, ahaztu egin dira AHTri buruzko herri galdeketa antolatzeagatik ezker abertzaleko zenbait alkate epaituak izan zirela PSOE agintean zegoelarik. Hots, *inposaketa* hitza, nork modu oso interesatuan erabiltzen du, beti bere ideologiaren arabera.

Nik ez daukat duda izpirik eztabaida horretan zeinen aldean dagoen zuzentasuna. Trikimailuak alde batera utzita, ziur nago, eztabaida garbi batean erraz demonstratu daitekeela, egungo Diputazioaren hondakin plana, Errauskailuan oinarritutakoa baino askoz garbiagoa, merkeagoa (427,5 milioi euro erraustearen kostua, erdia Aldundiaren plan osoa) eta gainera osasunaren aldetik hobea. Denok dakigu ere, oposizioa eta atzean dituzten indar ekonomikoak (*El Diario Vasco* propaganda



DANI BLANCO

tresna eraginkorra alde dutelarik) zer-nolako esamesak eta gezurrak (hori bai zabor kirasduna!) ari diren zabaltzen. Ni Oiartzunen bizi naiz, eta zin dagit, atez atekoa, eroso, garbia eta txukuna da, eta gainera, nor bere zaborren arduraren jabe izatea bultzatzen duen sistema. Hasieran ozenki protestatu zutenak egun isilik daude, kontra egiteko argudiorik gabe.

Nolako helburua halako bidea! Alabaina, nik uste, mamiz eta formaz, ezkerrekoak, demokrazia azken mugaraino bultzatu behar dugula. Inhabilitazioaren arriskuari aurre eginez AHTri buruzko galdeketa antolatu zuten alkate haiek bezala. Eta, edozein arrazoi delarik, herritar talde handi batek galdeketa antolatzea eskatzen badu, onartu ez ezik, gauzatzeko bidea abian jarri behar da. Hori bai, eta zilegitasun guztiz, gainera, ondo antolatua izateko behar den denbora hartuz. Esate baterako, hurrengo udal eta foru hauteskundeetan, modu paraleloan baina batera gauzatuz. Ateratzen dena ateratzen dela, guztiak onartuko dutela alde zurretik baieztatuz! Errauskailuarekin ez bezala (eraikita jai) Aldundiaren planak badu atzera bueltarik. Egungo oposizioak irabaziko balu bere esku legoke Hondakin Plan berria bertan behera uztea. Dena den, Katalunian 10 urtetan atzera bota duena (atez atekoa) udal txetxe bakarra izan da.


Hots. Ez lirerateke izango lehenengo hauteskundeak, zeinetan hautaketa arruntak eta bide batez galdeketa bereziak egiten diren. Bi hautestontzi desberdin, eta galdeketa garbia, besterik ez da behar. Hala eta guztiz ere, azpimarratu beharrekoa hau da: kontsulta garrantzitsua izanik, parte-hartze prozesua ezinbestekoa da, eta hau aurrenezko historian (hondakinen gaian) atez ateko sistemak bideratu du, Usurbilen (kontsulta eta guzti), Hernanin, Oiartzun-en edota Antzuolan. ■

Oiartzunen bizi naiz, eta zin dagit,
atez atekoa, eroso, garbia eta txukuna
da, eta gainera, nor bere zaborren
arduraren jabe izatea bultzatzen duen
sistema. Hasieran ozenki protestatu
zutenak egun isilik daude,
kontra egiteko argudiorik gabe



ASTE HONETAKO

zozketak



Besaro Landa Hotela

Bi gau
bi lagunentzat

Irati oihanaren sarreran
Irigoien, 5
Itzaltzu NAFARROA

www.besaro.es

1




Jorge Oteiza Fundazio Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

De la Cuesta, 7
Alzuza NAFARROA

www.museoteiza.org

2



Iruñeko Planetarioa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

3



Amaiur 2012

Ikuskizun artistiko-musikalerako
4 harpidedunentzat bina sarrera

**Pier-Paul Berzaitzen
zuzendaritzapean**

Uztailak 21 larunbata

Gaztelu Elkarte
Amaiur/Baztan NAFARROA

4



Munduko ipuinak

2 lagunentzat opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2329. Argia)

ANDRA MARI JATETXEA

- Luis Angel Agirre Muxika (Tolosa)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Juan Bereziartua Zabala (Lasarte-Oria)
- M Angeles Azpiroz Harrizurieta (Barañain)
- Iñaki Aurrekoetxea Arkotxa (Gernika-Lumo)
- Nekane Ariz Eskisabel (Usurbil)

888 TXISTE Kike Amonarriz

- Begoña Munduate Aierdi (Ataun)
- Jesus Aparicio de Castro (Bilbo)

EURAKA! Zientzia Museoa

- Peli Goia Escudero (Hernani)
- Haritz Eguren Urrestarazu (Zerain)
- Usurbilgo Txistulari Taldea (Usurbil)

ANDONI ARCILLA GROUP "Hilkorra ez banintz" CDa

- Izaskun Elizburu Urkizu (Zarautz)
- Jabier Agirre Lasarte (Donostia)
- Aintzane Linaza Etxeberria (Gasteiz)
- Gotzon Garitaonandia Euskaltegia (Bermeo)
- Izaro Sodupe Altuna (Azkoitia)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO


Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

Gunea

argia



*Astero
irakurle gehiagok
aukeratzen dute
independentzia*

Jada 57.000* gara.
Urtebetean %7,1eko igoera.

